



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2026ko urtarrilaren 29a

7. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 11-25/MOC-00144. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita berma dezan Etxebizitza Hutsen Erregistroko informazioa modu automatizatu, gaurkotu eta jarraituan emanen dela. Osoko Bilkurak onetsi du (4. or.).
- 11-25/MOC-00171. Erabakia, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita inklusioa, ekitatea, gardentasuna eta tratu-berdintasuna berma ditzan Nafarroako hezkuntza-sistemaren eta aniztasuna artatzeko politiken printzipio lagaezin gisa. Osoko Bilkurak onetsi du (4. or.).
- 11-26/MOC-00001. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroaren konpromiso europazalea berretsi eta europar proiektua bakearen, eskubideen, berdintasunaren eta kohesioaren gune gisa aldeztan baita, Espainia Europar Batasunean sartzearen 40. urteurrena dela-eta. Osoko Bilkurak onetsi du (5. or.).
- 11-26/MOC-00006. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gehienez bi hilabete-ko epean abiaraz dezan, Nafarroako Nekazaritzako Batzorde Aholku-emailean, EB-Mercosur akordioaren inpaktuari buruzko berariazko lantalde bat, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorearen parte-hartzea izanen duena. Osoko Bilkurak onetsi du (6. or.).
- 11-26/MOC-00010. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere kezka eta arbuio sakona adierazten baitu, Venezuelako lurraldean aldebakartasunez egindako ekintza militarrek direla-eta. Osoko Bilkurak onetsi du (7. or.).
- 11-25/MOC-00168. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premiatzen baita V16 balizaren derri-gortasuna bertan behera utz dezan. Osoko Bilkurak ezetsi du (7. or.).
- 11-26/MOC-00007. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesa ematen baitie Nafarroako nekazariari, abeltzainari eta nekazaritzako elikagaien industriari, Mercosur-ekiko merkataritza-akordioa onets daitekeela ikusita egiten dituzten erreibindikazioetan. Osoko Bilkurak ezetsi du (8. or.).
- 11-25/MOC-00156. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Bizikidetzaren Nafarroako II. Plan Estrategikoaren zirriborroari egindako ekarpeni buruzko eztabaida egiteko deialdia egin dezan. Memoria eta Bizikidetzeta, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordeak ezetsi du (8. or.).

—11-25/MOC-00169. Ebazpena, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita premiaz onets dezan txerri-izurri afrikarra prebenitzeko eta horri aurre egiteko foru plana. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak onetsi du (9. or.).

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/PES-00396. Galdera, azken bi ikasturteotan LH Dualean parte hartu duten enpresetan Nafarroako Gobernuak egindako ikuskapenei edo egiaztapenei buruzkoa buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- 11-25/PES-00397. Galdera, LH Dualerako Nafarroako programei, finantzaketa-lerroei edo pizgarri fiskalei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-25/PES-00398. Galdera, Gobernuak Nafarroan LH Dualeko programak egokitzeko eta lan-merkatuaren beharizanak aldian-aldian aztertzeke darabiltzan organoei, mahai sektorialeiei eta behatokiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- 11-25/PES-00399. Galdera, Nafarroako LH Dualeko ikasleek ikasketak bukatu eta 6 hilabetera eta urtebetera duten laneratze-tasari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-25/PES-00400. Galdera, Nafarroan LH Dualerako bideratzen den aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-25/PES-00402. Galdera, Leireko monasterioan BAI prestakuntza-programaren lehen urtea emate aldera Leireko beneditarren erkidegoarekin izandako lankidetzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 11-25/PES-00403. Galdera, lehendakariak Santos Cerdánekin eta Antxon Alonsorekin bazkaririk egin ote duen jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 11-25/PES-00404. Galdera, Iruñeko Hizkuntza Eskolan euskara-eskakizunik gabeko plazak betetzeko lehiaketa publikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-25/PES-00405. Galdera, Artistaren Estatutua Nafarroako errealitatera egokitzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-25/PES-00406. Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Traumatologia Zerbitzuko medikuntzako lehenbiziko kontsultei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- 11-25/PES-00407. Galdera, gizarte-zerbitzuetako haurren eta nerabeen programan Maestro Ávila fundazioaren ikastetxeko adingabeak direla-eta irekitako espedientei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-25/PES-00408. Galdera, Beangoetxea etxean Maestro Ávila fundazioaren izenarekin ezarritako ikastetxeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- 11-25/PES-00409. Galdera, Nafarroako Ubidea kontratuko 4. eta 9. zenbakiko berroreka ekonomiko-finantzarioei eta X. eranskinari buruzko eragozpenei, ohartarazpenei, legezketasun-erreserbei edo desadostasun txostenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- 11-25/PES-00410. Galdera, Nafarroako Ubidearen lehen faseko handitze obren kontratuan izandako atzerapenen arrazoiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- 11-25/PES-00411. Galdera, Nafarroako Ubidearen lehen faseko handitze-obren atzerapena administrazioari/emakida-emaileari egozteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- 11-25/PES-00412. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle doktore laguntzailei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- 11-25/PES-00413. Galdera, eskola-erizainaren figura ezartzeko aukerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- 11-25/PES-00414. Galdera, Nafarroan goi-tentsioko sarerik izanen ez duten eremuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- 11-25/PES-00415. Galdera, kirolaren legea taxutzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- 11-25/PES-00416. Galdera, kirol mezenasgoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- 11-25/PES-00417. Galdera, artxiboei eta dokumentuei buruzko lege bat taxutzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- 11-25/PES-00419. Galdera, pisu turistikoaren lizentziak emateari, ukatzeari eta banatzeari nahiz horien titulartasunari (partikularrak, funtsak edo enpresak) buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- 11-25/PES-00420. Galdera, Nafarroan 2023ko urtarrilaren 1etik aurreratzeko ingurumen-baimen integratuen eskabidei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (36. or.).

—11-25/PES-00421. Galdera, proiektu teknikoki bideragarriak eta hautagarriak eduki arren, 13 gazte aurrekontu-aurreikuspen faltagatik Lurberri planetik kanpo uzteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-26/REPA-00003. Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik 2026. urtean jasoko dituzten ordain-sariak (39. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

**11-25/MOC-00144. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-
tzen baita berma dezan Etxebizitza Hutsen Erregistroko informazioa
modu automatizatu, gaurkotu eta jarraituan emanen dela**

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko urtarrilaren 22an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita berma dezan Etxebizitza Hutsen Erregistroko informazioa modu automatizatu, gaurkotu eta jarraituan emanen dela. Erabakia eragin zuen mozioa EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Mikel Zabaleta Aramendia jaunak aurkeztu zuen, eta 2025eko urriaren 24ko 123. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Nafarroako Gobernua premia-tzen du, Etxebizitzaren Nafarroako Behatokiaren bidez, 2026ko maiatza baino lehen berma dezan Etxebizitza Hutsen Erregistroko informazioa modu automatizatu,

gaurkotu eta jarraituan emanen dela, etxebizitza hutsak identifikatzeko, politika publikoak optimizatuz eta modernizatuz eta udalerriekiko koordinazioa erraztuz.

2. Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioari proposatzen dio, Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentuarekin eta haren erakunde instrumentalekin lankidetzan, 2026ko maiatza baino lehen, etxebizitza hutsen gaineko zergari buruzko informazio-zirkular bat prestatu eta zabaldu dezan, bai eta oinarritzko ordenantza edo ordenantza-eredu bat ere, udalei aukera emanen diena ordenantza propio bat garatzeko, juridikoki sendoa den aplikazio bat ziurtatuz eta hura garatzeko udal-autonomia errespetatuz”.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**11-25/MOC-00171. Erabakia, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua
premia-tzen baita inklusioa, ekitatea, gardentasuna eta tratu-berdintasuna
berma ditzan Nafarroako hezkuntza-sistemaren eta aniztasuna artatzeko
politiken printzipio lagaezin gisa**

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko urtarrilaren 22an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premia-tzen baita inklusioa, ekitatea, gardentasuna eta tratu-berdintasuna berma ditzan Nafarroako hezkuntza-sistema-

ren eta aniztasuna artatzeko politiken printzipio lagaezin gisa. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premia-tzen du:

1. Inklusioa, ekitatea, gardentasuna eta tratu-berdintasuna printzipio lagaezin gisa berma ditzan; Nafarroako hezkuntza-sistemako printzipio gisa oro-

korrean eta, zehazkiago, aniztasuna artatzeko politiketako printzipio gisa.

2. CREENAn mantentzen dituzten Nafarroako hezkuntza-sisteman inklusioa bermatzeko beharrezkoak diren hezkuntza-baliabideen preskripzioa eta hornidura.

3. Prozesua birbidera dezan, prozesua urtarrilaren 18ko 1/2023 Foru Dekretuak ezarritako terminoetan oinarrituz (foru dekretuak Hezkuntza Departamentuaren mendeko Nafarroako Hezkuntza Ekitaterako Baliabide Zentroaren (CREENA) sorrera,

antolamendua eta funtzionamendua arautzen ditu).

4. Alegría Fundazioarekin sinatutako hitzarmena indarrak gabe utz dezan, eta aniztasunaren arreta osoari eragiten dion esparru-hitzarmen bat landu dezan CREENAren zuzendaritzarekin, eta 1/2023 Foru Dekretuak araututako lankidetzaguneetan parte hartzen duten entitateen ordezkartzearekin kontaktuz.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/MOC-00001. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroaren konpromiso europazalea berretsi eta europar proiektua bakearen, eskubideen, berdintasunaren eta kohesioaren gune gisa aldeztu baita, Espainia Europar Batasunean sartzearen 40. urteurrena dela-eta

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko urtarrilaren 22an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroaren konpromiso europazalea berretsi eta europar proiektua bakearen, eskubideen, berdintasunaren eta kohesioaren gune gisa aldeztu baita, Espainia Europar Batasunean sartzearen 40. urteurrena dela-eta. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Nafarroaren konpromiso europazalea berretsi eta europar proiektua bakearen, eskubideen, berdintasunaren eta kohesioaren gune gisa aldeztu du, Espainia Europar Batasunean sartzearen 40. urteurrena dela-eta.

2. Ezezkoa ematen dio Donald Trumpen agendarekiko eta Europaren segurtasuna arriskuan jartzen duen edozein estrategiarekiko jarraikeriari, eta dei egiten du Europaren autonomia estrategikoa eta segurtasun, energia, industria eta teknologiaren alorretako subiranotasuna indartu daitezen.

3. Europaren erantzun integral bat abiarazteko dei egiten du, zeina oinarrituta egon baita justiazko trantsizio berde eta energetikoan, gizarte-politiken indartzean, etxebizitzarako eskubidean eta giza eskubideak errespetatzen dituen migrazio-politika batean, eta ezezkoa ematen die araugintzaren atzerakadei eta Gobernu Kanpoko Erakundeak jomugan ipintzeari edo pertsegituak izateari.

4. Europako autonomia estrategiko errearen aldeko apustua berresten du, Europako politikendako gida izanen dena, ez bakarrik segurtasunaren eta defentsaren arloan, ezpada industria-, nekazaritza-, merkataritza- eta migrazio-politikan ere, giza eskubideen, teknologiaren, ingurumenaren eta energiaren arloko errespetuan oinarrituta, eta betiere herrien subiranotasuna errespetatuz eta defendatuz.

5. Demokrazia eta europazaletasuna defendatzen ditu autogobernuaren eta bizikidetzaren zutabe gisa, eta ezezkoa ematen die indar erreazionario eta ultraeskuindarren normalizazioari eta haiek eskubideei, askatasunei, berdintasunari eta zuzenbide-estatuari dagokienez darabiltzaten politika atzerakoiei.

6. Nafarroako Gobernuak premiatzen du bere politika publikoak eta ekintza instituzionala aipatu agendarekin bat etorrarazten jarrai dezan Espainiako Gobernuarekiko eta Europako erakundeekiko akordioak eta lankidetzak sustatuz, halatan aurrerapausoak emate aldera Europaren subiranotasunean, gizarte-kohesioan, trantsizio ekologikoan eta etxebizitzaren eskuragarritasunean.

7. Erabaki hau Espainiako Gobernuari eta Europako erakunde eskudunei helarazten die, jasotako neurriak ezagut eta bultzatzen”.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/MOC-00006. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita gehienez bi hilabeteko epean abiaraz dezan, Nafarroako Nekazaritzako Batzorde Aholku-emailean, EB-Mercosur akordioaren inpaktuari buruzko berariazko lantalde bat, nekazaritza- eta abeltzaintza- sektorearen parte-hartzea izanen duena

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko urtarrilaren 22an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia-tzen baita gehienez bi hilabeteko epean abiaraz dezan, Nafarroako Nekazaritzako Batzorde Aholku-emailean, EB-Mercosur akordioaren inpaktuari buruzko berariazko lantalde bat, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorearen parte-hartzea izanen duena. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bere arbuio politiko eta etikoa adierazten du EB-Mercosur merkataritza-akordioa dela-eta, uste baitu aukera ematen duela bertan sar daitezen Europako ekoizleei eskatzen zaizkien osasun-, ingurumen- eta animalia-ongizateko estandar berberak betetzen ez dituzten produktuak, elkarrekikotasunaren eta lehia justuaren printzipioa urratuz.

2. Onartezintzat jotzen du Europako lehen sektorea truke-txanpon gisa erabiltzea nazioarteko merkataritza-akordioetan, eta adierazten du ez dela etikoki defendagarria Europako nekazari eta

abeltzainei ekoizpen-estandar handiak eskatzea, eta, aldi berean, estandar horiek betetzen ez dituzten produktuei merkatu berean lehiatzeko aukera ematea, arriskuak eta kostuak kontsumitzailearen bizkarrean jarriz bidenabar.

3. Nafarroako Gobernua premia-tzen du gehienez bi hilabeteko epean abiaraz dezan, Nafarroako Nekazaritzako Batzorde Aholku-emailean, EB-Mercosur akordioaren inpaktuari buruzko berariazko lantalde bat, nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorearen parte-hartzea izanen duena, honako helburu hauekin:

- Akordioak Nafarroako lehen sektorean izanen lituzkeen ondorioak (ekonomikoak nahiz produktzio eta merkatu arlokoak) zehazki aztertzea.

- Konpentsazio- eta babes-neurri ekonomiko, administratibo eta fiskalen sorta bat definitzea eta proposatzea, akordioaren ondorio negatiboak arindu eta Nafarroako nekazaritza- eta abeltzaintza-ustiategiaren bideragarritasuna bermatu ahal izateko”.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/MOC-00010. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere kezka eta arbuio sakona adierazten baitu, Venezuelako lurraldean aldebakartasunez egindako ekintza militarrek direla-eta

OSOKO BILKURAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2026ko urtarrilaren 22an onetsitako erabakia, zeinaren bidez zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere kezka eta arbuio sakona adierazten baitu, Venezuelako lurraldean aldebakartasunez egindako ekintza militarrek direla-eta. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Kezka eta gaitzespen sakona adierazten du Venezuelako lurraldean alde bakarrez gauzaturako ekintza militarren aurrean. Izan ere, ekintza horiek nazioarteko zuzenbidearen oinarritzko printzipioak urratzen dituzte, bereziki indarraren erabileraren eta mehatxuaren debekua eta estatuen subiranotasunaren eta lurralde-osotasunaren errespetua, Nazio Batuen Gutunean jasota daudenak. Ekintza horiek oso aurrekari arriskutsuak dira bakerako eta eskualde-segurtasunerako, eta biztanleria zibila arriskuan jartzen dute.

2. Berretsi egiten du Venezuelako egoera bide baketsuetatik bakarrik konpondu behar dela, elkarriketaren, negoziazioaren eta Venezuelako herriaren borondatearen adierazpen guztien errespetuaren bidez, kanpoko esku-sartzerik gabe eta nazioarteko zuzenbideari atxikita, eta berresten du

prozesu politiko inklusibo batek bakarrik, venezuelarren gidaritzapean, eraman dezakeela demokratikoa, iraunkorra eta giza duintasuna errespetatzen duen konponbide batera.

3. Berretsi egiten du Latinoamerika eta Karibe bake-eremuak direla, elkarrekiko errespetuaren, gatazken konponbide baketsuaren eta esku ez sartzearen gainean eraikita, eta eskualde-batasunari dei egiten diogu, desberdintasun politikoetatik harago, eskualde-egonkortasuna arriskuan jartzen duen edozein ekintzaren aurrean. Era berean, Nazio Batuetako idazkari nagusia eta estatu kideak premiatzen ditu alde anitzeko mekanismo egokiak erabil ditzaten lan ona egiten jarraitzeko, tentsioak arintzen eta eskualdeko bakea babesten laguntzeko.

4. Adierazten du kezkatuta dagoela gobernua kontrolatzeko edo baliabide natural edo estrategikoak kanpotik administratu edo eskuratzeko ahalegin ororen aurrean, hori bateraezina baita nazioarteko zuzenbidearekin, eskualdearen egonkortasun politiko, ekonomiko eta soziala mehatxatzen baitu.

5. Bere elkartasuna adierazten dio Venezuelako herriari”.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00168. Mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia-tzen baita V16 balizaren derrigortasuna bertan behera utz dezan

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, ezetsi egin du Emilio Jiménez Román jaunak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Espainiako Gobernua premia-tzen baita V16 balizaren derrigortasuna bertan behera utz dezan. Mozioa 2025eko abenduaren 19ko 150. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-26/MOC-00007. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesaren ematen baitie Nafarroako nekazariei, abeltzainei eta nekazaritzako elikagaien industriari, Mercosur-ekiko merkataritza-akordioa onets daitekeela ikusita egiten dituzten erreibindikazioetan

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2026ko urtarrilaren 22an egindako bilkuran, ezetsi egin du Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babesaren ematen baitie Nafarroako nekazariei, abeltzainei eta nekazaritzako elikagaien industriari, Mercosur-ekiko merkataritza-akordioa onets daitekeela ikusita egiten dituzten erreibindikazioetan. Mozioa 2026ko urtarrilaren 20ko 4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00156. Mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Bizikidetzaren Nafarroako II. Plan Estrategikoaren zirriborroari egindako ekarpenei buruzko eztabaida egiteko deialdia egin dezan

MEMORIA ETA BIZIKIDETZA, KANPO EKINTZA ETA EUSKARA BATZORDEAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Memoria eta Bizikidetzaren, Kanpo Ekintza eta Euskara Batzordeak, 2026ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, ezetsi egin du Isabel Olave Ballarena andreak aurkeztutako mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Bizikidetzaren Nafarroako II. Plan Estrategikoaren zirriborroari egindako ekarpenei buruzko eztabaida egiteko deialdia egin dezan. Mozioa 2025eko azaroaren 14ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

11-25/MOC-00169. Ebazpena, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia- tzen baita premia onets dezan txerri-izurri afrikarra prebenitzeko eta horri aurre egiteko foru plana

LANDA GARAPENEN ETA INGURUMENEN BATZORDEAK ONETSI DU

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Batzordeak 2026ko urtarrilaren 20an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premia onets dezan txerri-izurri afrikarra prebenitzeko eta horri aurre egiteko foru plana. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premia onets du:

1. Txerri-izurri Afrikarra Prebenitzeko eta haren aurrean Prestatzeko Plana premia onets dezan, Ministerioaren gomendioekin eta autonomia-erkidego mugakideen arteko prebentzio- eta lankidetzaneurriekin bat etorrira.

2. Txerri-ustategietako biosegurtasun-neurriak berehala indaru ditzan, animaliak, pentsuak edo nekazaritzako eta abeltzaintzako materialak garraiatzeko ibilgailuak garbitzeko eta desinfektatzeko protokoloak barne. Halaber, ikuskapenak eta arrisku-ustategietako kontrolak indartu ditzan, abeltzaintzako, garraiolarientzako eta kontratatutako langileentzako berariazko prestakuntzarekin.

3. Basafauna Zaintzeko Foru Programa bat abian jar dezan. Programa horrek arrisku-eremuetan basurdearen monitorizazioa areagotuko du, tiroz

hildako edo hilda aurkitutako piezei osasun-analisiak egiten zaizkie, eta talde espezializatuak faunahilotzak kentzeko eta kudeatzeko protokolo azkar bat ezarriko da.

4. Ehiza-sektorearekin lankidetzan aritzeko estrategia bat ezar dezan, argi eta garbi arautua. Estrategiak ehiztariak tresna laguntzaile gisa hartuko ditu, inoiz ez arduradun gisa, basurdeen populazioa murrizteko ezohiko uxaldiak areagotuko ditu, jarduteko, aurkikuntzak jakinarazteko eta laginak hartzeko protokolo argiekin. Era berean, tiroz hildako basurdeengatik edo hilotzen aurkikuntza jakinarazteagatik konpentsazio ekonomikoa emateko sistema bat izanen du.

5. Txerri-izurri afrikarrari buruzko foru batzorde tekniko iraunkor bat ezar dezan, honako hauen ordezkariekin: Nafarroako Gobernua, txerri-sektore profesionala, al baitariak, ehiza-sektorea, NUP eta toki-entitateak.

6. Abeltzainei, ehiztariari, garraiolariei, landa-eremuko biztanleei eta natura-eremuetako bisitariari zuzendutako informazio- eta prebentzio-kanpaina publiko bat egin dezan”.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00396. Galdera, azken bi ikasturteotan LH Dualean parte hartu duten enpresetan Nafarroako Gobernuak egindako ikuskapenei edo egiaztapenei buruzkoa buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, azken bi ikasturteotan LH Dualean parte hartu duten enpresetan Nafarroako Gobernuak egindako ikuskapenei edo egiaztapenei buruzkoa buruzkoa, 2025eko azaroaren 14ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak 11-25-PES-00396 galdera idatzia egin du, eta honako hau jakinarazten dio Hezkuntzako kontseilariak galderari erantzunez:

1. Legeak zehazten du LH Dualeko kasu bakoitzean gutxienez bi tutorek esku hartzen dutela: bat ikastetxekoa eta bestea enpresa edo erakunde laguntzailekoa.

Ikastetxeko tutore dualak (LHko ikastegiko tutorea) ardura hauek ditu: enpresarekin koordinatzea, prestakuntza-plana zehaztea, ikaslea enpresan sartzeko prestatzea, enpresako fasean ikasten duela zaintzea, ikaskuntzaren emaitzak aztertzea, eta tratu-berdintasuna, diskriminaziorik eza eta antzeko printzipioak bermatzea.

Enpresako edo organismo parekatuko tutore duala (enpresako tutorea) harrera-enpresan dago. Ikastetxeko tutorearekin batera, ziurtatu behar du prestakuntza-plana behar bezala garatzen dela, eta enpresan lortu beharreko ikaskuntzaren emaitzak identifikatu, prestakuntza praktikoa koordinatu,

ikasleak tutorizatu, eta aurreikusitako prestakuntza-baldintzak betetzen direla bermatu behar du.

Enpresa txikietan, enpresako tutorea hainbat enpresa edo erakunde parekatuaren artean “partekatua” edo “mankomunatua” izaten ahal dela aurreikusten du legeak, ETEek errazago parte hartzeko.

Ondorioz, bi tutore horiek (ikastetxea + enpresa) partekatuko dute LH Dualaren berehalako eta eguneroko ikuskatze zeregina. Hau da, haiek dira “jarraipena egiten dutenak”.

Beraz, legeak ez du aipatzen Estatuko erakunde zehatz bat prestakuntza-harreman bakoitzerako; aitzitik, enpresaren eta zentroaren artean banatzen du erantzukizuna, haien erantzunkidetasunaren pean.

Legeak LHko sistemaren esparru orokorra ezartzen du: administrazioen, ikastetxeen eta enpresen artean elkarlanean aritzeko betebeharra, eta modalitate instituzionalaren definizioa LH Dualarentzat.

Hala ere, enpresako prestakuntzaren garapeneraren “jarraipen zehatza” (kalitatea, baldintzak betetzea, tutoretza, etab.) tutoreen esku uzten du legeak (ikastetxekoa eta enpresakoa).

Beraz, administrazioak esku hartzen ahal du (adibidez, hezkuntzako ikuskapenen, kontrolen, auditoretzen, egiaztapenen eta abarren bidez), baina legeak ez dio esplizituki esleitzen estatuko/nazioko erakunde bakar bati LH Dualeko enpresa guztien nahitaezko zaintza. Praktikan, autonomia-erkidegoan, hezkuntzako ikuskapen zerbitzuei edo erakunde baliokideei dagozkie eginkizun horiek, autonomia-erkidego bakoitzaren antolatutaren arabera, eta ez zuzenean lege orokorraren arabera.

Ikuspegi hori “erantzunkidetasun” nozioan oinarritzen da: ikastetxeak + enpresak partekatzen

dute ikas-ekinezko ikasleen prestakuntza-erantzukizuna.

2. Lan-arloari soilik dagozkion kontuetarako (kontratuak, Gizarte Segurantzaren alta ematea, ordainsariak, lanaldia, gizarte-segurantza, kontratazioetan iruzurra...), Laneko eta Gizarte Segurantzako Ikuskatzaitzarena da eskumena; Departamentuak Ikuskatzaitza horrek eska dezakeen dokumentazioa eskatzen du, eta, lanaren arloko arauak betetzen ez direla antzematen badu, Lan Ikuskaritzara bidera dezake espedientea. (LH Dualaren gidak oroitarazten du zer dokumentazio eduki behar den Lan Ikuskaritzaren bisita baterako).

3. Ikasleek LH Dualaren esparruan gertatzen diren laneko gorabeherak edo gehiegikeriak jakinarazteko aurreikusita dagoen prozedura ikastegian gertatutako gorabeherak jakinarazteko erabiltzen den bera da, ez baitago lan-harremanik ikasleen eta enpresaren artean. Prestakuntza-hitzarmen baten bidezko harremana da.

4. LH Dualeko baldintzak betetzen ez dituzten enpresei baliorik gabe utziko zaie prestakuntza-hitzarmena.

Iruñean, 2025eko abenduaren 17an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-25/PES-00397. Galdera, LH Dualerako Nafarroako programei, finantzaketa-lerroei edo pizgarri fiskalei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreak LH Dualerako Nafarroako programei, finantzaketa-lerroei edo pizgarri fiskalei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 14ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak 11-25-PES-00397 galdera idatzia egin du, eta honako hau jakinarazten dio Hezkuntzako kontseilariak horren inguruan:

1. Ez dago “urteko lerro” espezifikoa bakar bat, “LH Dualeko ikasleak hartzeagatik landa-eremuko enpresa txiki eta ertainei ordaintzeko” helburu soila eta urteko zuzkidura homogeenoa eta bereizita duteena. Praktikan, honako hauek uztartuz sustatzen da landa-eremuko enpresa handi, ertain nahiz txikien parte-hartzea: (a) prestakuntzarako/enpresentzako dirulaguntzen deialdiak (b) kaptazio eta bidelaguntza programak (Empresa Dual Navarra CENekin),

(c) tutoreen prestakuntza/akreditazioa (Hezkuntza Departamentua), (d) Europako funtsak erabiltzea (EGF+/SEM/NextGeneration) LH modernizatzeko eta (e) laguntza orokorrak ETEei/landa-garapenari, enpresen gaitasuna handitzeko.

2. Enpresa parte-hartzaileak ez dira landa-eremukoak edo hiri-eremukoak diren kontuan harturik banakatu; izan ere, hainbat modu daude “landakotasun” sailkapena definitzeko (adibidez, X biztanle baino gutxiago dituzten udalerrriak, EIN tipologia edo eskualde-irizpideak). Baliozko portzentaje bat emateko, sailkatu aurretik landakotasun-irizpidea finkatu beharko litzateke.

3. Enpresa bakoitzak barne-tutore bat izan beharrean, hainbat ETEk tutore bat partekatzen ahal dute. Konponbide ezin hobea da tutoretza osoaz arduratzeko giza baliabiderik ez duten mikroETE edo enpresa txikientzat.

Mekanismo horri esker, enpresa txikiak (edo landa-enpresek) tutoretzaren azpiegitura erabat beren gain hartu gabe hartzen ahal dituzte LH Dualeko ikasleak. Tutore mankomunatuak esaten zaio horri.

Nafarroako Gobernuak eta Nafarroako Merkataritza Ganbera elkarlanean ari dira LH Dualeko jarduerak garatzeko. LH Dualaren inguruko Nafarroako Ganberaren webgunean adierazten denez, programak honako hauek eskaintzen ditu: “aholku-

laritza pertsonalizatua”, “izapideetan laguntza”, “tutore izateko prestakuntza enpresako profesionalentzat” eta “jarraipena eta laguntza prozesu osoan zehar”. Azpimarratu duenez, parte-hartze horrek ez du kosturik enpresarentzat.

Iruñean, 2025eko abenduaren 16an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00398. Galdera, Gobernuak Nafarroan LH Dualeko programak egokitzeko eta lan-merkatuaren beharrianak aldian-aldian aztertzeko darabiltzan organoei, mahai sektorialeiei eta behatokiei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 14ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak 11-25-PES-00398 galdera idatzia egin du, eta honako hau jakinarazten dio Hezkuntzako kontseilariak horren inguruan:

1. Planteatutako gaiari dagokionez, jakinarazten da Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza Departamentuaren bitartez eta beste departamentu eskudun batzuekin koordinatuta, hainbat partaidetza, azterketa eta aholkularitza organo erabiltzen dituela lan-merkatuaren premien jarraipena egin eta Lanbide Heziketa –modalitate duala barne– egokitzeko. Estratu horien artean, ondokoak nabarmentzen dira:

Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseilua

Lanbide Heziketaren arloan aholkularitza estrategikoa emateko kide anitzeko organo aholkuemailea. Administrazioaz gain, gizarte-eragile batzuek eta enpresa sarearen erakunde ordezkari batzuek parte hartzen dute bertan.

Aldizkakotasuna: oro har, urtean bitan biltzen da gutxienez, eta beste bilkura batzuetarako deial-

dia ere egiten ahal da, prestakuntza-eskaintzen plangintzak edo berrikuspenak hala eskatzen duenean.

Lanbide Heziketako mahai sektorialak

Lanbide-arloka edo produkzio-eremuka egituratuta, enpresa, ikastetxe, erakunde sektorial eta adituei zuzenean parte hartzeko aukera ematen diete. Profil berriak, kualifikazio-beharrak eta LH Dualeko programetan egin beharreko doikuntzak identifikatzea da haien eginkizuna.

Aldizkakotasuna: sektorearen arabera aldatzen da bileren maiztasuna, baina urtero edo sei hilean behin deitzen dira, lan-merkatuaren bilakaeraren eta eskaintza planifikatzeko prozesuen arabera.

Nafarroako Lanbide Heziketaren Behatokia

Enpleguko datuak, joerak eta aurreikuspenak aztertzeko tresna tekniko bat, estatistika iturrietatik, enplegu zerbitzuetatik eta prestakuntza zentroetatik datorren informazioa biltzen duena.

Aldizkakotasuna: behatokiaren lana etengabea da, eta txostenak eta analisiak aldizka egiten dira, estatistiken eguneratze egutegiari eta hezkuntzaren plangintza beharrei jarraikiz.

LH dualeko lantaldeak

Prestakuntza zentroen eta Hezkuntza Departamentuaren artean koordinatzeko egitura batzuk dira, ezarpena ebaluatu, gorabeherak hauteman eta hobekuntzak proposatzeko.

Aldizkakotasuna: hilean behin biltzen dira gutxienez.

Organo eta batzorde horietan sortutako informazioa Lanbide Heziketako eskaintzaren urteroko planifikazio prozesuetan sartzen da, baita LH Dualako programak berrikusi eta eguneratzeko prozesuetan ere.

2. Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza Departamentuaren bitartez, hainbat jarraipen eta ebaluazio adierazle erabiltzen ditu LH Dualaren egokitasuna eta eraginkortasuna aztertzeko. Nagusien artean, hauek nabarmentzen dira:

Graduatutako ikasleen laneratzetasa

Ikasketak amaitu ondoko sei eta hamabi hila-bete artean heziketa-zikloarekin zerikusia duen enplegua lortzen duten ikasleen portzentajea.

Prestakuntzaren jarraitutasunaren tasa

Beren hasierako prestakuntzarekin lotutako goi-mailako ikasketak edo goi-mailako heziketa-zikloak egiten jarraitzea erabakitzen duten graduatuen portzentajea.

LH Dualaren uzte tasa

Amaitu aurretik heziketa-zikloa eten duten ikasleen proportzioa.

Ikasleen eta enpresa laguntzaileen gogobetetasuna

Ikasleei eta enpresa parte-hartzaileei egindako inkestak bidez lortutako adierazle batzuk dira. Besteak beste, alderdi hauek ebaluatzen dituzte: prestakuntzaren kalitatea, zenbateraino egokitzen zaion lanpostuaren beharrei, eta ikastetxearen eta enpresaren arteko koordinazioa.

Sektoreko eskaintza eta eskariari doitzea

Mahai sektorialek eta Lanbide Heziketako Behatokiak hautemandako premiak kontuan hartuta, LH Dualean eskaintako plaza kopurua, profil kualifikatu gutxiegi edo gehiegi dituzten sektoreak identifikatuta.

Enpresen parte-hartzea

LH Dualean inplikaturako enpresen kopurua eta aniztasuna, bai eta produkzio sektore estrategikoen estaldura maila ere.

Azken bi urteetako bilakaera:

Nafarroan 2024/2025 ikasturtean hasi zenez ezartzen LH Duala, datuen bilketa eta analisiaren hasierako fasean daude aipaturako adierazleak, eta, beraz, ezin da eman azken bi urteetako bilakaera konparatzeko serie esanguratsurik.

3. Enpresen prestakuntza-premia bat identifikatzen denetik, LH Dualean hari loturiko eskaintza eguneratu edo sortzen den arte batez beste igarotzen den epeari buruzko galderari erantzunez, honako hau jakinarazten da:

Nafarroako Hezkuntza Departamentuak LH Dualeko mahai sektorialen, behatokiaren eta jarraipen-batzordeen bidez egiten du produkzio sarearen prestakuntza-beharren jarraipena, eta prestakuntzaren eskaintza planifikatzeko prozesuetan txertatzen du lortutako informazioa.

Nafarroako LH Duala 2024/2025 ikasturtean hasi zenez ezartzen, eta gaur egun modalitatea hasierako sendotze-fasean dagoenez, ez dago datu historiko nahikorik enpresen premia identifikatzen denetik prestakuntzaren eskaintza egokitzen den arte batez beste zenbateko epea igarotzen den zehazteko.

Iruñean, 2025eko abenduaren 17an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00399. Galdera, Nafarroako LH Dualeko ikasleek ikasketak bukatu eta 6 hilabetera eta urtebetera duten laneratze-tasari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreak Nafarroako LH Dualeko ikasleek ikasketak bukatu eta 6 hilabetera eta urtebetera duten laneratze-tasari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 14ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak 11-25-PES-00399 galdera idatzia egin du, eta honako hau jakinarazten dio Hezkuntzako kontseilariak horren inguruan:

1. Gaur egun, ezinezkoa da eskatutako datuak ematea, LH Dualaren modalitatea 2024/2025 ikasturtean eta heziketa-zikloetako lehen mailetan bakarrik ezarri baita. Ikasturte honetan, bigarren ikasmailan daude ikasle horiek, eta, beraz, oraindik

ez dituzte amaitu ikasketak eta ez dira sartu lanmerkatuan.

Ondorioz, oraindik ez dago haien laneratzeari buruzko informaziorik, ez direnez gertatu hori neurtu ahal izateko baldintzak.

2. Nafarroako Gobernuak aldizkako txosten publikoak argitaratuko ditu, eta hor jasoko dira aipatutako arrakasta-adierazle nagusiak.

Maiztasunari dagokionez, aurrez ikusten da txosten horiek urtero argitaratuko direla, ikasturte bakoitzeko datuak itxi eta baliozkotzearekin batera. Informazio gehigarriak edo eguneratze garrantzitsurik izanez gero txosten osagarriak egiteko aukera aurreikusten da.

3. Nafarroako Gobernuak, Hezkuntza Departamentuaren bitartez, modu sistematikoan aztertuko du 2025/2026 ikasturtea amaitzean ikasleei egindako inkestetan jasotako informazioa, LH Dualeko lehen promozioari dagokionez. Lanbide Heziketaren kalitatea etengabe ebaluatzeko funtsezko tresna izanen dira inkesta horiek, eta emaitzak sistema hobetzeko prozesuetan txertatuko dira.

Iruñean, 2025eko abenduaren 16an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-25/PES-00400. Galdera, Nafarroan LH Dualerako bideratzen den aurrekontuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreak Nafarroan LH Dualerako bideratzen den aurrekontuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 14ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak 11-25-PES-00400 galdera idatzia egin du, eta honako hau jakinarazten dio Hezkuntzako kontseilariak horren inguruan:

1. Departamentuaren aurrekontu-plangintza modu integralean egituratzen da Lanbide Heziketa osorako; izan ere, Lanbide Heziketako sistema modernizatze eta indartzeko estrategia orokorren parte dira LH Duala ezartzeko, garatzeko eta hobetzeko beharrezkoak diren jarduerak.

Horregatik, bai modalitate dualarentzat bai LHko gainerako eskaintzarentzat mesedegarri diren zeharkako programetara bideratzen dira baliabide ekonomikoak: adibidez, LHren modernizazioa, ikastetxeen ekipamendua, irakasleen prestakuntza eta eguneratzea, berrikuntzari, enpresako praktikak eta gaitasunak egiaztatzeko ekintzak.

Ondorioz, ezin da banakatu LH Dualerako soilik den aurrekonturik, Lanbide Heziketaren hobekuntzari lotutako partida guztiek laguntzen baitute, zuzenean edo zeharka, hura garatzen.

2. Lanbide Heziketako Sistemaren antolamendua garatzen duen uztailaren 16ko 659/2023 Errege Dekretuak 163. artikuluan xedatutakoaren arabera, enpresa batean edo erakunde parekatu batean egiten diren saio edo prestakuntza-aldietan, langile bati edo tutore izendatutako beste norbaiti dagokio prestakuntza egiten ari den pertsona gainbegiratzea, betiere, hura matrikulatuta dagoen lanbide-heziketako ikastetxeko tutorearekin koordinatuta.

Bai lanbide heziketako ikastegian bai enpresako edo erakunde parekatuko prestakuntzan lan-tzen diren ikaskuntza-emaizten jarraipena eta ebaluazioa koordinatuki egiten dituzte ikastetxeko eta enpresako tutore dualek, zuzeneko lankidetzan ariturik ikaskuntza-emaizta partekatuak barne hartzen dituzten curriculumak dauzkan lanbide-moduluaren edo dauzkaten lanbide-moduluaren arduradun den irakasle, hezitzaile edo aditu bakoitzarekin.

Enpresako edo erakunde parekatuko prestakuntzaren jarraipenean zuzeneko lankidetzaren egiteko, zuzendaritza-taldeak zilegi izanen du jarraibide honetan zerrendatutako irakasleei esleitzea Nafarroako Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko Itunaren ondorioz zuzeneko irakaskuntzaren murrizketatik eratorritako bi eskola-orduetako bat, Ekitate-

aren eta Hezkuntza Kalitatearen aldeko Itunak ezartzen duenarekin bat etorritik. Orobat, eta aintzat hartuta zer xedatzen duen Ekitatearen eta Hezkuntza Kalitatearen aldeko Itunak, eskola-orduetako hartutako bigarren ordu bat esleitzen ahalko da xede horretarako, irakasle-taldeek edo departamentuek berek proposatuta.

Bestalde, enpresako edo erakunde parekatuko prestakuntzaren jarraipenerako esleitzen ahalko dira ikastetxeko zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen dituen ordu osagarriak, hau da, astean zenbatzeko eskolarik gabeko ordu osagarriak. Enpresako edo erakunde parekatuko prestakuntzarako ordu horiek irakasleen ordutegi pertsonalean kontsignatuko dira, astean zenbatzeko "ordu osagarriak" atalean.

Enpresako edo erakunde parekatuko tutore dualak jakinaraziko du eta aztertuko du prestakuntza jasotzen ari den pertsonak aurreikusitako ikaskuntza-emaiztak izan dituen egonaldian, eta horren berri emanen dio prestakuntza-zentroari, lanbide-heziketako ikastegiko tutore dualaren bitartez, lanbide-modulua ebaluatu eta kalifikatzeko.

24/25 ikasturtean, 2.361 enpresak bat egin dute jada LH Dualeko programan parte hartzen zuten enpresekin. LH Dualean parte hartzen duten enpresek ikasle bat baino gehiago hartzen ahal dituzte.

Aukera horri esker, enpresa sarearen benetako beharretara egokitzen ahal da prestakuntzaren eskaintza, ikasleak errazago laneratzen ahal dira, eta ikastetxeen eta enpresen arteko etengabeko lankidetzaren sustatzen da.

Iruñean, 2025eko abenduaren 16an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00402. Galdera, Leireko monasterioan BAI prestakuntza-programaren lehen urtea emate aldera Leireko beneditarren erkidegoarekin izandako lankidetzari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Leireko monasterioan BAI prestakuntza-programaren lehen urtea emate aldera Leireko beneditarren erkidegoarekin izandako lankidetzari buruzkoa, 2025eko azaroaren 14ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES00402 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Leireko monasterioan BAI prestakuntza programa irakasteko Leireko beneditar komunitatearekin lankidetzan aritzeari

buruz. Honako hau jakinarazten dio Nafarroako Gobernuako Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horren inguruan:

Leireko San Salbatore monasterioa Nafarroako Gobernuaren jabetzakoa da, 1937an orduko Foru Diputazioak eskuratu eta gero. 1954ko azaroan, monje beneditarrei usufuktuan laga zitzairen, eta haiek mantendu eta kudeatzen dute.

Alde horretatik, Nafarroako Gobernuak BAiko ordezkarien eta monje beneditarren arteko elkarriketak erraztuz lagundu du, bi eragileek BAI programaren lehen urtea gune horretan emateko aukera azter dezaten.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen duena betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 2an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

11-25/PES-00403. Galdera, lehendakariak Santos Cerdánekin eta Antxon Alonsorekin bazkaririk egin ote duen jakiteko

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin José Javier Esparza Abaurrea jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, lehendakariak Santos Cerdánekin eta Antxon Alonsorekin bazkaririk egin ote duen jakiteko, 2025eko azaroaren 14ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioaren bozemaile den Javier Esparza jaunak PES-00403 galdera egin du. Honako hau jakinarazten dio Nafarroako Gobernuako lehendakariak horren inguruan:

Ez dago halakorik jasota.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 2an

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

11-25/PES-00404. Galdera, Iruñeko Hizkuntza Eskolan euskara-eskakizunik gabeko plazak betetzeko lehiaketa publikoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Iruñeko Hizkuntza Eskolan euskara-eskakizunik gabeko plazak betetzeko lehiaketa publikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 14ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 2an
Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-2025/PES 00404 galdera idatziari dagokionez, honako hau jakinarazten du Hezkuntzako kontseilariak:

Hezkuntza Departamentuaren 2023-2027 aldiko hizkuntza-plana izapidetu zenean, ez zen zehaztu euskara eskakizuna zuen plazarik Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean. Hizkuntza plan horretan ezarzen denez, ikastetxeetan euskara eskakizuna esleituko zaie irakasle ez diren langileen lanpostuei, baldintza honen arabera:

“Euskaraz soilik irakasten duten ikastetxeetan, irakasle ez diren lanpostu guztiak.

Euskaraz edo euskara irakasten duten ikastetxeetan, Hezkuntza Departamentuak zehazten dituen lanpostuak”.

Plan horretan ezarritakoari jarraikiz, Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiari bidali zitzaion ikastetxeetako irakasle ez diren langileen zer lanposturi esleitu nahi zitzaion euskara eskakizuna. Proposamen hori 2025eko apirilaren 10eko Mahai Orokorrean aztertu zen.

Hizkuntza Planaren espedientea aztertuta, egiaztatu da Hizkuntza Eskola Ofizialean 6 administrari plaza daudela: horietatik 3 funtzionarioek betetzen dituzte (32922, 35624 eta 35718) eta 3 aldi baterako kontratua duten langileek (37439, 31158 eta 32307). Gainera, egiaztatu denez, nahiz eta azken bi lanpostu horiek (31158 eta 32307) plantilla organikoan euskararen eskakizuna esleituta ez izan, 2022an kontratazioak egin zirenean barne hartzen zuten euskararen eskakizuna, ikastetxearen beharrei erantzuteko, Hezkuntza Departamentuak bi lanpostu horiei euskara eskakizuna esleitzea proposatu eta Euskarabidearen aldeko txostena jaso ondoren.

Azaldutako aurrekariak aztertuta, eta ikastetxearen eskaera ikusita, Hezkuntza Departamentuak dagozkion jarduerak eginen ditu Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialeko bi administrari plazari euskara eskakizuna esleitzea proposatzeko. Horretarako, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publiko eta Barneko kontseilariaren uztailaren 25eko 195/2022 Foru Aginduak eskatzen duen izapide osoari jarraituko zaio, eta txostena eskatuko zaio Euskarabideari.

Bestalde, galderan aipatzen diren Iruñeko HEOko Zerbitzu Orokorren eta atezainen lanpostuei dagokienez, proposatu zen kategoria horietako plaza jakin batzuei euskara eskakizuna esleitzea, Hezkuntza Departamentuak araubide orokorreko irakaskuntzak D ereduaren edo D eta A/G ereduak partekatuz ematen dituzten ikastetxeetarako soilik ezarritako irizpidearekin bat etorritik. Hala, araubide bereziko irakaskuntzak ematen dituzten gainerako ikastetxeetan, hala nola NUHEOn, Dantza-eskolan edo kontserbatorioetan, Zerbitzu Orokorren edo atezainen lanpostuek ez dute esleituta euskara eskakizunik plantillan.

Iruñean, 2025eko abenduaren 2an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00405. Galdera, Artistaren Estatutua Nafarroako errealitatera egokitzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak Artistaren Estatutua Nafarroako errealitatera egokitzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 14ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak 11-25/PES-00405 galdera idatzia egin du, jakiteko zertan den artistaren estatutua Nafarroako errealitatera egokitze ahalegina. Honako hau jakinarazten dio Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horren inguruan:

Artistaren Estatutua Nafarroako errealitatera egokitze ahaleginaren egoerari dagokionez, Viának Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia esparru zabalago batean ari da lan hori garatzen: kultura-sektorea profesionalizatzeko estrategia, Nafarroako Kulturaren 2024-2028 aldiko Plan Estrategikoan aurreikusia.

Ikuspegi horri esker, azpisektore kulturalen askotariko errealitatei erantzun dakieke (lanekoak, prestakuntzakoak, fiskalak), neurri bereziak

behar baitira musikarako, arte eszenikoetarako, ikus-entzunezkoetarako, ondarrerako, bitartekari-tzarako edo sorkuntza garaikiderako.

Egindako azterketa teknikitik abiatuta, ondorio nagusiak honela laburtu daitezke:

- Kultura-eragileentzako laguntza eta orientazioa hobetzea,
- lanbide-esperientzia aitortzea,
- departamentu artean koordinatzea, sektorearen aniztasunagatik,
- eta kulturaren arloko enpleguari buruzko datu eguneratuak izateko beharra.

Adierazi behar da identifikatutako neurri asko jada aplikatzen ari direla, Estatuko araudiaren arabekoak badira, eta Nafarroak bere araudiaren garapenaren arabera aplikatzen dituela.

Estrategia propioari dagokionez, epe laburreko ekintza espezifikoak lantzen ari dira: informazio publikoa hobetzea, profesionali laguntzea, diagnostiko sektoriala eta Nafarroako Gobernuko beste departamentu batzuekin koordinatzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 1ean

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

11-25/PES-00406. Galdera, Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Traumatologia Zerbitzuko medikuntzako lehenbiziko kontsultei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Domingo González Martínez jaunak Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Traumatologia Zerbitzuko medikuntzako lehenbiziko kontsultei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak

emana. Galdera 2025eko azaroaren 14ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínez jaunak 11-25/PES-00406 informazio-eskaera aurkeztu du. Honako hau jakinarazten dio Nafarroako Gobernu-ko Osasuneko kontseilariak horren inguruan:

Nafarroako Unibertsitate Ospitaleak jakinarazi du Kirurgia Ortopedikoaren eta Traumatologiaren Zerbitzuan Errioxako Autonomia Erkidegotik datozen politraumatismoak eta patologia konplexuak artatzen direla.

Eskatutako informazioaren tamaina eta 2025eko azarora arteko analisia direla medio, prestatzen ari dira eskatutako informazioa.

Eskuragarri dagoenean, parlamentariari helaraziko zaio eskatutako informazioa.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen duena betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 9an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00407. Galdera, gizarte-zerbitzuetako haurren eta nerabeen programan Maestro Ávila fundazioaren ikastetxeko adingabeak direla-eta irekitako espedientei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, gizarte-zerbitzuetako haurren eta nerabeen programan Maestro Ávila fundazioaren ikastetxeko adingabeak direla-eta irekitako espedientei buruzkoa, 2025eko azaroaren 14ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak 11-25/PES-00407 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Honako hau jakinarazten dio Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu-ko kontseilariak galderari erantzuteko:

Gizarte-zerbitzuetako haurren eta nerabeen programak zenbat espediente ireki ditu Maestro Ávila Fundazioaren ikastetxeko adingabeak direla-eta? (Eta zer motatakoak dira?) Zenbatek jarraitzen dute irekita une honetan, eta zer motatako jarduketak egiten ari dira haiekin?

Gaur egun, Nafarroako Gizarte Zerbitzuetako Haur eta Nerabeak Babesteko Sistemak bi espediente ireki ditu, seme-alabak Maestro Ávila Fun-

dazioaren Argiñanoko ikastetxera daramatzaten edo zeramatzaten bi familia-unitaterekin lotuta. Bi espediente horietatik, batek irekita jarraitzen du gaurkoz; Lizarrako Haur eta Nerabeak Artatzeko Talde Espezializatu familia-unitate horretan esku hartzen ari da egun. Beste espedientea jada Nafarroan bizi ez den beste familia-unitate bati dagokio, jatorrizko herrialdera itzuli denez.

Haur eta nerabeak artatzeko taldeak zenbat espediente ireki ditu Maestro Ávila Fundazioaren ikastetxeko adingabeak direla-eta? (Eta zer motatakoak dira?) Zenbatek jarraitzen dute irekita une honetan, eta zer motatako jarduketak egiten ari dira haiekin?

Haur eta nerabeak artatzeko taldeak espediente bakarra ireki du, gaur egun haien esku-hartzea jasotzen ari den familia bati dagokiona. Hasierako balorazioa egin ondoren, ondorioztatu zen haur eta nerabeak artatzeko taldearen jardueraren esparruan sartzen dela babesgabetasun-gradientea. Gurasoei laguntzeko eta esku hartzeko prozesu bat eskaini zitzaion, eta biek onartu zuten.

Zenbat bisita egin dira Maestro Ávila Fundazioaren ikastetxeko familien etxeetara, adingabeen babesgabetasuna dela-eta? Zer ondorio izan dituzte bisita horiek?

Zabalik dagoen espedienteari dagokionez, Lizarrako haur eta nerabeak artatzeko taldearen esku-hartzearen esparruan, esku hartzeko planari dagozkion bisitak egiten ari dira etxera.

Adingabearen Fiskaltzak esku-hartzerik eskatu al die udal nahiz foru mailako gizarte-zerbitzuei, Maestro Ávila Fundazioaren ikastetxeko adingabeak direla-eta? (Zenbat eta zer motatakoak izan dira?).

Adingabearen Fiskaltzak ez dio inolako esku-hartzerik eskatu Gizarte Zerbitzuen Sistemari, Maestro Ávila Fundazioaren ikastetxearen gertuko familia-unitateekin lotutako haurrei eta nerabeei dagokienez.

Udal nahiz foru mailako gizarte-zerbitzuek Maestro Ávila Fundazioaren ikastetxeko adingabeak direla-eta egindako esku-hartzeetakoren batetik abiatuta, egin al zaio jakinarazpenik poli-ziari edo Adingabearen Fiskaltzari? (Zenbat eta zer motatakoak izan dira?).

Maiatzaren 11ko 12/2022 Foru Legeak, haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, eskubideak eta berdintasuna sustatzekoak, Atariko tituluaren 6. artikuluan ezartzen duen bezala, pertsona edo agintaritze orok, jakiten badu haurren eskubideak urratzen ari direla, agintaritze eskuduntan salatuko dute, eta haien tutoretza dutenei exijitzen zaie zerbait da hori. Kasu honetan, gurasoak salaketa bat jarri zuen Polizia Nazionalean, baina Gizarte Zerbitzuen sistema publikoari ez zaio eman.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen duena betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 1ean

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-25/PES-00408. Galdera, Beangoetxea etxean Maestro Ávila fundazioaren izenarekin ezarritako ikastetxeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Beangoetxea etxean Maestro Ávila fundazioaren izenarekin ezarritako ikastetxeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 14ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25-PES-00408 galdera idatziari dagokionez, honako hau jakinarazten du Hezkuntzako kontseilariak:

Hezkuntza-eskubidea ezartzen duen Lege Organikoak honako hau xedatzen du 23. artikuluan: “Administrazio-baimenaren printzipioaren mende egongo dira araubide orokorreko nahiz araubide bereziko irakaskuntza eskaintzen duten irakaskuntza- zentro pribatuen irekiera eta jardunbidea. Baimena emanen da, baldin eta irakaskuntza-zentroek betetzen badituzte lege honen 14. artikuluan xedatutakoarekin bat datozen gutxiene-

ko betekizunak. Zentro horiek ahalmen akademiko osoak izanen dituzte. Baimena ezeztatuko da, zentroek betekizun horiek ez dituztenean.

Bestalde, honako hau dio 14. artikulua: “1. Irakaskuntza-zentro guztiek bete beharko dituzte gutxieneko betekizun batzuk, kalitate-bermearekin irakasteko. Gobernuak erregelamendu bidez ezarriko ditu betekizun horiek.

2. Gutxieneko betekizun horiek izanen dira irakasleen titulazio akademikoaren ingurukoak, ikasle eta irakasleen arteko kopuru-erlazioaren ingurukoak, irakaskuntza- eta kirol-instalazioen ingurukoak, eta eskola-postuen ingurukoak”.

Nafarroako Foru Komunitatean unibertsitateaz kanpoko araubide orokorreko irakaskuntzak ematen dituzten ikastetxe pribatuen baimena arautzen duen prozedura uztailaren 6ko 251/1992 Foru Dekretuaren bidez arautzen da, I. eta II. kapituluetan, 6. artikuluan eta hurrengoetan. Ikastetxe pribatu bat irekitzeko eta jardunean jartzeko administrazio-baimenaren espedientea sustatzaileak edo haren legezko ordezkariak eskatuta hasiko da, eta aipatutako artikuluetan deskribatutako datuak eta dokumentazioa erantsiko dira.

Ikastetxe eta irakaskuntzen Baimen eta Erregistro Unitateak emandako informazioa kontuan

hartuta, gaur-gaurkoz, Maestro Ávila Fundazioaren titularrak ez du eskatu baimenik Argiñanon dagoen ikastetxea irekitzeko eta martxan jartzeko. Beraz, Hezkuntza Departamentuko zerbitzu teknikoek ez dute eman aplikatu beharreko araudiak agintzen duen txostena.

Ez da baimen-eskaerarik egin, ezta ere, Anderatzen zegoen ikastetxe pribatu zaharraren instalazioei dagokienez, zeina fundazio horrek erosi baitu, antza denez.

Ez dakigu zehazki noiz abiarazi zituen Maestro Ávila Fundazioak bere hezkuntza-jarduerak Argiñanon; badakigu, ordea, 2009tik dagoela Ministerioaren Fundazioen Erregistroan inskribatuta.

Dena dela, Hezkuntza Departamentuak jarduera horien berri du, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak egindako bi bisitaren ondorioz: bata 2016/17 ikasturtean, eta bestea 2020/21 ikasturtean. Bisita horietan, eskaintzen diren hezkuntza-etapei, ikasle kopuruari, instalazioei, irakasle eta titulazioei, programazioei, egutegiari eta ordutegiari buruzko informazioa bildu zuten. Hezkuntza-etapa guztietan egiten ziren hezkuntza-jarduerak, Haur Hezkuntzatik hasi eta Batxilergora arte. Azken bisitan, 43 ikasle zituztela jakinarazi zen, nahiz eta ezin izan zen egiaztatu, ez baitzen zerrendarik eman eta egun hartan ikasleak ez baitziren eskoletara agertu, COVID kasu batengatik. Dirudienez, atzerriko ikastetxe ez-presentzial batean matrikulatuta zeuden ikasleak. Ez zuten Hezkuntza Departamentuak antolatutako garraiorik, ez zenez ikastetxe erregistratu edo baimendu bat, ezta eskola-jantokirik ere. Ez zuen baimendutako eskola-jantokirik. Bisita horretan, ikastetxea Hezkuntza Departamentuaren ikastetxeen erregistroan inskribatu eta baimendu ahal izateko jarraitu beharreko prozedura jakinarazi zitzaion haren titularrari, eta hark behar bezala jaso zuen informazio hori. Bi bisita horietatik eta ondorengo ikuskapen txostenetik, ondorio hau atera daiteke:

“Fundación Maestro Ávila” ikastetxea ez dago erregistratuta Nafarroako Gobernuaren ikastetxeen sarean, eta, beraz, ikastetxeko ikasle-irakasleak ez daude EDUCA programan erregistratuta. Ez dago, ezta ere, hezkuntza-laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleen EDUCA zentsurik.

Horiek horrela, ez dute egiaztatu behar izan irakasleek beharrezko duten titulazioa, eta Hezkuntza Departamentuak ez ditu onetsi behar izan ikastetxeko instalazioak, programazioak, egutegia, ordutegia, eta araudian ezarritako beste zenbait baldintza.

Tituluen homologazioa ez dago Departamentuaren esku, Hezkuntza Ministerioaren esku baizik.

Hezkuntzako Ikuskapenaren eginkizunak ekainaren 30eko 80/2008 Foru Dekretuak arautzen ditu, Hezkuntza Departamentuaren Hezkuntzako Ikuskapenaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen dituenak, 3. artikuluan. Eginkizun horien artean dago unibertsitate ez diren hezkuntza zentro publiko nahiz pribatuen funtzionamendua gainbegiratzea eta kontrolatzea, baita haietan eragiten duten programena ere, pedagogiaren eta antolaketaren ikuspegitik. Gainbegiratze- eta kontrol-lan hori gure komunitateko hezkuntza-sistema osatzen duten ikastetxe erregistratuen eta baimenduen sarean egiten da.

Ugar, Abartzuza, Hiriberri Deierri, Argiñano, Arzotz, Ziritzako etxeak, Bidaurre eta Aritzalako udalerrietako adingabeak matrikulatuta dauden ikastetxeei dagokienez, gaur egun, Nafarroako ikastetxeen sarea osatzen duten ikastetxe publikoetan edo pribatu itunduetan eskolatuta dauden ikasleak bano ez ditu Hezkuntza Departamentuak. Hori esanda, eta Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren Eskolatze eta Plangintza Arloek emandako informazioaren arabera, hauek dira herri horietako eskolatze-datuak, hezkuntza-etaparen arabera:

Abartzuzan, 41 ikasle daude Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko hezkuntza-etapetan: 18 Lehen Hezkuntzan, 16 DBHn eta 7 Batxilergoan. Ikastetxe hauen artean banatzen dira ikasle horiek: Puyko Andre Maria ikastetxe itundua (2 DBHn eta 4 Batxilergoan), Santa Ana ikastetxe itundua (2 Lehen Hezkuntzan), Abartzuzako Zumadia HLHI (12 Lehen Hezkuntzan), Lizarrako Remontival HLHIP (3 Lehen Hezkuntzan), Villatuertako San Veremundo HLHIP (1 Lehen Hezkuntzan), Lizarralde BHI (12 DBHn eta 3 Batxilergoan) eta Lizarra Ikastola (2 DBHn). Datu horiek erantsitako taulan jasotzen dira.

Ikastetxea	Ikaslearen udalerrria	Ikaslearen herria	Guztira	2025-2026		
				ML		
				LH	DBH	Batx.
Guztira			41	18	16	7
Lizarrako Ntra. Sra. del Puy ikastetxe itundua	Abartzuza	Abartzuza	1			1
			2		1	1
			2		1	1
			1			1
Lizarrako Santa Ana ikastetxe itundua	Abartzuza	Abartzuza	1	1		
			1	1		
Abartzuzako Zumadia HLHIP	Abartzuza	Abartzuza	2	2		
			1	1		
			2	2		
			1	1		
			1	1		
			2	2		
			1	1		
			1	1		
Lizarrako Remontival HLHIP	Abartzuza	Abartzuza	1	1		
			1	1		
			1	1		
Villatuertako S. Veremundo HLHIP	Abartzuza	Abartzuza	1	1		
Lizarrako Lizarraldea BHI	Abartzuza	Abartzuza	1		1	
			1		1	
			1			1
			1		1	
			1		1	
			1		1	
			1			1
			1			1
			1		1	
			2		2	
			1		1	
			1		1	
			1		1	
Lizarra Ikastola	Abartzuza	Abartzuza	2		2	

Deierriko Hiriberri Deierri, Aritzala eta Ugar udalerrietan, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren Plangintza/Eskolatze Arloak emandako datuen arabera, ikastetxe eta hezkuntza-etapa hauetan eskolatuta daude ikasleak:

Hiriberri Deierri: 1 ikasle Lehen Hezkuntzan, Mater Dei ikastetxe itunduan; 5 ikasle Lehen Hezkuntzan, Remontival HLHn; eta 2 ikasle DBHn, Lizarraldea BHIn.

Aritzalan: 1 ikasle Batxilergoan, Puyko Andre Mariaren ikastetxe itunduan; 1 ikasle DBHn, Lizarraldea BHIn; eta bi ikasle Lizarra Ikastolan, bat Lehen Hezkuntzan eta bestea DBHn.

Ugarren: 1 ikasle Batxilergoan, Lizarraldea BHIn.

Eskolatze-datuak eskatzen diren gainerako udalerrietan (Argiñano, Arzotz, Ziritzako etxeak eta Bidaurre), Plangintza eta Eskolatze Arloetan erabiltzen den TABLEAU aplikazioak ez du erregistratzen ikaslerik Hezkuntza Departamentuaren ikastetxearako ikastetxe publikoetan nahiz pribatu itunduetan eskolatuta.

Erantsitako taulan, Deierri osatzen duten udalerri guztietako eskolatze-datuak jasotzen dira. Hortik atera dira aurreko datuak.

Ikastetxea	Ikaslearen udalerria	Ikaslearen herria	Guztira	2025-2026		
				ML		
				LH	DBH	Batx.
Guztira			132	70	46	16
Aiegiko Mater Dei ikastetxe itundua	Deierri	Allotz (Deierri)	2	2		
		Bearin (Deierri)	1	1		
		Hiriberri Deierri (Deierri)	1	1		
Lizarrako Ntra. Sra. del Puy ikastetxe itundua	Deierri	Arandigoien (Deierri)	2		1	1
		Aritzala (Deierri)	1			1
		Aizkoa (Deierri)	1			1
		Bearin (Deierri)	1		1	
			1			1
Errezu (Deierri)	1			1		
Iruñeko San Cernin ikastetxe itundua	Deierri	Bearin (Deierri)	2	2		

Abartzuzako Zumadia HLHIP	Deierri	Aizkoa (Deierri)	1	1		
		Bearin (Deierri)	1	1		
		Eraul (Deierri)	1	1		
			1	1		
			1	1		
			1	1		
		Gorozin (Deierri)	1	1		
		Iruñela (Deierri)	1	1		
		Lakar (Deierri)	1	1		
		Lorka (Deierri)	1	1		
		Murugarren (Deierri)	1	1		
		Errezu (Deierri)	1	1		
			1	1		
			1	1		
		Zurukuain (Deierri)	1	1		
			1	1		
			2	2		
			2	2		
			1	1		
		Lizarrako Remontival HLHIP	Deierri	Bearin (Deierri)	2	2
3	3					
1	1					
2	2					
1	1					
2	2					
2	2					
1	1					
1	1					
Eraul (Deierri)	1			1		
	1			1		
Gorozin (Deierri)	1			1		

		Ibiriku Deierri (Deierri)	1	1		
		Lorka (Deierri)	1	1		
			1	1		
			1	1		
		Murelu Deierri (Deierri)	1	1		
		Hiriberri Deierri (Deierri)	5	5		
			2	2		
		Zurukuain (Deierri)	1	1		
Iruñeko El Lago Mendillorri HLHIP	Deierri	Bearin (Deierri)	1	1		
Villatuertako S. Veremundo HLHIP	Deierri	Arandigoien (Deierri)	2	2		
		Lorka (Deierri)	2	2		
			1	1		
		Murelu Deierri (Deierri)	1	1		
		Murugarren (Deierri)	1	1		
Iruñeko AGDE	Deierri	Lorka (Deierri)	1			1
Lizarrako Lizarraldea BHI	Deierri	Allotz (Deierri)	1		1	
		Arandigoien (Deierri)	1			1
		Aritzala (Deierri)	1		1	
		Aizkoa (Deierri)	2		2	
		Bearin (Deierri)	1			1
			1		1	
			1		1	
			1		1	
		Eraul (Deierri)	1		1	
			1		1	
			2		2	
			1		1	
			1		1	
		Gorozin (Deierri)	1		1	
		Ibiriku Deierri (Deierri)	1		1	
		Iruñela (Deierri)	1			1
		Lakar (Deierri)	2		1	1
			2		2	
			1		1	

		Lorka (Deierri)	1			1
			2		2	
			1			1
			1			1
			1		1	
			2		1	1
			1		1	
			1		1	
			1			1
		Murugarren (Deierri)	2		2	
			1		1	
		Errezu (Deierri)	1		1	
			1		1	
		Ugar (Deierri)	1			1
		Hiriberri Deierri (Deierri)	2		2	
Zurukuain (Deierri)	1		1			
	1		1			
	1		1			
Iruñeko Julio Caro Baroja BHI	Deierri	Zabal (Deierri)	1		1	
Lizarrako Lizarra Ikastola	Deierri	Allotz (Deierri)	1	1		
		Aritzala (Deierri)	2	1	1	
		Aritzaleta (Deierri)	1		1	
		Bearin (Deierri)	1		1	
			1	1		
		Eraul (Deierri)	1		1	
			2		2	
		Zabal (Deierri)	1		1	
			1	1		
Zurukuain (Deierri)	1		1			

Laburbilduz, esan daiteke 251/1992 Foru Dekretuak ezartzen duela zer betekizun bete behar diren Nafarroan araubide orokorreko ikasketa ez-unibertsitarioak ematen dituzten ikastetxe pribatuak baimentzeko. Baimen-prozedura egiteko, beharrezkoa da Azpiegituren Zerbitzuak, Antolamendu Zerbitzuak eta Ikuskapen Zerbitzuak txostena egitea. Gaur-gaurkoz, "Fundación Maestro Ávila" izeneko ikastetxeak ez du hasi erregistratzeko eta baimentzeko prozesu hori, eta, beraz, ez dira egin txosten horiek eta ez dago ikastetxeko ikasle eta irakasleen datu ofizialik EDUCA plataforman.

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak informatzeko bisita batzuk egin ditu, eta ikastetxearen jardura egiaztatu eta erregularizatzeko bidea jakinarazi dio titularrari, baina ezin da kontrol eta gainbegiratze lanik egin, Foru Komunitateko beste ikastetxe publiko edo pribatu itundu batzuetan egingen den bezala, Hezkuntza Departamentuak erregistratu eta baimendu gabeko ikastetxea delako.

Iruñean, 2025eko abenduaren 10ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00409. Galdera, Nafarroako Ubidea kontratuko 4. eta 9. zenbakiko berrorka ekonomiko-finantzarioei eta X. eranskinari buruzko eragozpenei, ohartarazpenei, legezketasun-erreserbei edo desadostasun txostenei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Nafarroako Ubidea kontratuko 4. eta 9. zenbakiko berrorka ekonomiko-finantzarioei eta X. eranskinari buruzko eragozpenei, ohartarazpenei, legezketasun-erreserbei edo desadostasun txostenei buruzkoa, 2025eko azaroaren 21eko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak galdera bat egin du, idatziz erantzun dakion. Honako hau jakinarazten dio Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako kontseilariak horren inguruan:

Egin al dute Kontu-hartzailtza Nagusiak, kontu-hartzailtza delegaturen batek edo Gobernuaren

Zerbitzu Juridikoek erreparorik, ohartarazpenik, legezketasun-erreserbarik edo desadostasun-txostenik Nafarroako Ubidearen 1. fasearen handitzearen emakida-kontratuaren 4. eta 9. berrorkatze ekonomiko-finantzarioak direla-eta?

Eskaera egin duen parlamentariak PEI-00998an jasotako informaziora jo dezake, barne hartzen baitu galdera parlamentario honetan aipatutako dokumentazioa.

Erantzuna baiezkoa bada, zer datatan, zer organok eta zer eduki nagusirekin?

Eskaera egin duen parlamentariak 2025eko abenduaren 11n PEI-00998an eman zitzaion erantzunean dauka eskatzen duen informazioa. Erantzun horretan, igorritako dokumentuen data, organoa eta eduki nagusia aurkitzen ahal ditu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduen 215. artikuluan xedatzen duena betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 12an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00410. Galdera, Nafarroako Ubidearen lehen faseko handitze obren kontratuan izandako atzerapenen arrazoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Nafarroako Ubidearen lehen faseko handitze obren kontratuan izandako atzerapenen arrazoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 21eko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak galdera bat egin du, idatziz erantzun dakion. Honako hau jakinarazten dio Nafarroako Gobernuaren Lurralde Kohesiorako kontseilariak horren inguruan:

Nafarroako zein Gobernuk eragin zituen, urteak eta departamentu arduraduna adierazita, Nafarroako Ubidearen 1. fasearen handitzearen emakida-kontratuaren 4. eta 9. berrerekatze ekonomiko-finantzarioak eragin zituzten “administrazioari/emakida-emaileari egotz dakizkiokkeen” atzerapenak?

Esan behar da Nafarroako Ubidearen lehen fasearen handitze-proiektuaren X. eranskina dagokion eremu ureztagarria kontzentratzeko eta modernizatzeko lanen egutegi bat dela; lan horiek 2015 eta 2018 artean planifikatu ziren.

Nafarroako Gobernuak, VIII. legegintzaldian (2011 eta 2015 artekoa), ez zuen aurreikusi ureztzaileen erkidego guztiek berariaz parte hartuko zuten eta Nafarroako Ubidearen 1. fasearen handitze-proiektuarekin esplizituki bat egingo zuten ziurtatzea.

Plangintzarik eta zehaztasunik eza tarteko, eta ureztzaileen erkidego batzuek erabaki zuten ez, obrak jada hasita zeudenean, ez zirela batuko Nafarroako Ubidetik ureztatzera, atzeratu egin ziren lanak, trazadurak aldatu eta udalez gaindiko proiektu sektorialaren aldaketa izapidetu behar izan zelako.

4. eta 9. berrerekatzeekin aldatu egin zen, proiektua errealitatera egokitzen saiatzeko eta, ondorioz, berriz egin behar izan zen lanen egutegia.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen duena betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 12an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00411. Galdera, Nafarroako Ubidearen lehen faseko handitze-obren atzerapena administrazioari/emakida-emaileari egotzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Nafarroako Ubidearen lehen faseko handitze-obren atzerapena administrazioari/emakida-emaileari egotzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Dipu-

tazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 21eko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak galdera bat egin du, idatziz erantzun dakion, Nafarroako Ubidearen 1. fasearen handitzeari buruz (11-25/PES-00411). Honako hau jakinarazten dio Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak horren inguruan:

– Zehazki zer egunetan eta zer ebazpen, txosten edo ofizioen bidez onartu zuen Nafarroako Gobernuak Nafarroako Ubidearen 1. fasearen handitzearen atzerapenak administrazioari/emakida-emaleari ordainarazi beharrekoak zirela, eta ez emakidadunari, duela gutxi bidalitako dokumentazioan adierazten den bezala?

• 718/2018 Ebazpena, maiatzaren 29koa, Landa Garapeneko, Nekazaritzako eta Abeltzaintzako zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez onetsi baitziren eremu ureztagarriaren 1. fasearen handitzean interes orokorreko azpiegiturak eraikitze eta ustiatzeko herri-lanen emakidaren oreka ekonomikoa berrezartzeko baldintzak, adjudikaziodunak 2016ko azaroaren 28an eskatuak.

• 467/2020 Ebazpena, uztailaren 2koa, Herri-lanen eta Azpiegituren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriaren 1. fasearen handitzean interes orokorreko azpiegiturak eraikitze eta ustiatzeko herri-lanen emakidako kontratuaren 4. berrerekatzea onartzen duena, Administrazio-klausula Partikularren Agiriaren X. eranskina eguneratzearen ondorioz, Egaren adarrari dagokionez (Ega 1 eremuan izan ezik).

• 724/2024 Ebazpena, irailaren 9koa, Herri-lanen eta Azpiegituren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriaren 1. fasearen handitzean interes orokorreko azpiegiturak eraikitze eta ustiatzeko herri-lanen emakidako kontratuaren 9. berrerekatzea onartzen duena, Administrazio-klausula Partikularren Agiriaren X. eranskina eguneratzearen ondorioz, Egaren adarrari dagokionez.

• 1086/2022 Ebazpena, azaroaren 16koa, Herri-lanen eta Azpiegituren zuzendari nagusiak emana, Aguas de Navarra SA sozietate emakidadunari 4,771.044,16 euro ordaintzea onartzen duena, Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriaren 1. fasearen handitzean interes orokorreko azpiegiturak eraikitze eta ustiatzeko herri-lanen emakidako kontratuaren XXII. sektoreko Arga 4 eremuko lanetan sortutako gailuengatik.

• 1136/2023 Ebazpena, azaroaren 28koa, Herri-lanen eta Azpiegituren zuzendari nagusiak emana, Aguas de Navarra SA sozietate emakidadunari

5,974.211,89 euro ordaintzea onartzen duena, Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriaren 1. fasearen handitzean interes orokorreko azpiegiturak eraikitze eta ustiatzeko herri-lanen emakidako kontratuaren XXVI. sektoreko Ega 3 eremuko lanetan sortutako gailuengatik.

• 761/2024 Ebazpena, urriaren 11koa, Herri-lanen eta Azpiegituren zuzendari nagusiak emana, Aguas de Navarra SA sozietate emakidadunari 5,391.644,34 euro ordaintzea onartzen duena, Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriaren 1. fasearen handitzean interes orokorreko azpiegiturak eraikitze eta ustiatzeko herri-lanen emakidako kontratuaren XXVI. sektoreko Ega 2 eta Ega 7B eremuetako lanetan sortutako gailuengatik.

– Nafarroako Gobernuak nola justifikatzen du azpiegituraren kalitate eta kudeaketa kanonak eta ur bolumenaren kanonak % 49 inguruko igoera metatua izatea emakidaren hasierako eskaintzarekin alderatuta, eta, aldiz, emakidadunaren barneko errentagarritasun-tasan (BET) aitortutako inpaktua soilik $-%$ 1,92koa izatea berrerekatze batean eta $-%$ 0,002koa bestean?

Diferentzia horri eusteko erabilitako suposizio ekonomikofinantzarioen azalpen xehatua eskatzen dut.

2014ko maiatzaren 21ean, Nafarroako Gobernuak eta Aguas de Navarra sozietate emakidadunak emakida-kontratu bat sinatu zuten, Nafarroako Ubidearen 1. fasearen handitzearen eremu ureztagarriak eraikitze eta ustiatzeko.

Berrerekatze ekonomikofinantzarioetan metatutako zenbatekoa hazi egin da, besteak beste, ez direlako ureztatzailen erkidego guztiak batu Nafarroako Ubidearen 1. fasearen handitze-proiektura.

Emakidaren plan ekonomikofinantzarioan berrerekatzeak sartu eta doitu egin zirenean, galdera honetan adierazitako berrerekatze bakoitzerako (4. eta 9. berrerekatzeak dira, eta lehenengo horretan, atzerapenak ez ezik, azalera ere sartzen dira), % 1,92 jaitsi zen proiektuaren barneko errentagarritasun-tasa (BET) 4. berrerekatzearen kasuan, eta % 0,002, aldiz, 9. berrerekatzearen kasuan.

Emakidaren Administrazio Klausula Partikularren Agiriaren arabera, kasu horietan bezala zuzenean berrerekatzeen ondorioz izan diren eraginak kopensatzeko soilik, neurriak hartu behar dira kontratuaren oreka ekonomikofinantzarioa berrezartzeko, eta plan ekonomikofinantzarioa berrikusi beharko da, oreka berrezarriko duten neurri batzuk sartzeko; hau da, proiektuaren BETa proiektuaren adjudikaziodunak aurkeztutako eskaintzan zehazten

zenarekin berriro berdinduko dutenak (kasu hone-tan, proiektuaren BETa eskaintzaren plan ekonomi-ko eta finantzarioan jasotako % 11,328ra eramanen dutenak):

4. berrerekatzearen kasuan, ereduaren errenta-garritasuna % 1,92 murriztu zelarik, eragin hori konpentsatzeko eta BETa berriz ere eskaintzaren % 11,328an kokatzeko, % 21,17 jaitsi behar izan zen eskainitako murrizketa, eta, ondorioz, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, % 28,23 igo zen sozietate emakidadunari azpiegituraren kalitate eta kudeaketa kanona eta ur bolumenaren kanona ordaintzeko aplikatutako tarifa, aurrez onetsitako azken berrerekatzean (2020ko apirilaren 15ean) finkatu zenaren gainetik; edo, gauza bera dena, % 49,14 handitu zen kanon horien ondoriozko tarifa, hasierako eskaintzarekin konparatuz gero, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera.

Garrantzitsua da adieraztea berrerekatze horretan proiektuaren garapenaren errealitate-errealitate ari zirela denbora-programazioak eta Egaren adarraren tamaina-murrizketa. Denborari dagokionez, errealitatea zen proiektuak lau urte baino gehiagoko atzerapena zeramala, eta horrek ustiapenaren batez besteko aldia murrizten zuela, 28 urtetik 24 urtera. Hortaz, igo egin behar zen tarifa, 4 urte gutxiagoan ordaindu behar baitzen kontratatutakoa. Era berean, hektarea kopuru txikiago baten artean ordaindu behar zen orain kontratua, inbertsioa txikitu gabe, eta, ondorioz, zenbateko hori ere handitu behar zen: hori zen sozietate emakidadunaren ordainsaria zehazteko beste biderkatzailea. Horrenbestez, ez da harritzekoa berrerekatze horren emaitzak ia eraginik ez izatea sozietate emakidadunaren ordainsarian, tarifan eragina izanagatik ere (% 28,23 handiagoa, aurretik onetsitako berrerekatzearen aldean), eta % 1,40 baino ez handitzea ordainsari hori euro arruntetan, eta, are gehiago, % 2,02 ere murriztea egungo balioan.

9. berrerekatzearen kasuan, ereduaren errenta-garritasuna % 0,002 murriztu zelarik, eragin hori konpentsatzeko eta BETa berriz ere eskaintzaren % 11,328an kokatzeko, % 0,037 jaitsi behar izan zen eskainitako murrizketa, eta, ondorioz, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera, % 0,05 igo zen sozietate emakidadunari azpiegituraren kalitate eta kudeaketa kanona eta ur bolumenaren kanona ordaintzeko aplikatutako tarifa, aurrez onetsitako azken berrerekatzean (2020ko abenduaren 30ean) finkatutakoaren gainetik; edo, gauza bera dena, % 49,28 handitu zen kanon horien ondoriozko tarifa, hasierako eskaintzarekin konparatuz gero, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrera.

Gogoan izan behar da, aurreikuspenen arabera, emakida kontratuak 4 urteko eraikuntza epea izanen zuela, eta 73,700.000 euroko inbertsioa egin eta 15.275 hektareako eremu bat 26 urtez ustiatuko zela. Plangintza eta zehaztasun faltarekin batera, ureztatzaileen erkidego batzuek erabaki zutenez, obrak jada hasita zeudenean, ez zirela batuko Nafarroako Ubidetik ureztatzaera, atzeratu egin ziren lanak, trazadurak aldatu eta udalez gaindiko proiektu sektorialak izapidetu behar zirelako.

Proiektuaren garapenaren errealitatea dela medio, 9. berrerekatze hori onetsi zenean, aurreikusi zen parametro horiek 11 urteko eraikuntza epea eta 19 urteko ustiapen aldia bihurtuko zirela (azalera osorako); inbertsioa orain 87,680.410 eurokoa izanen zela (% 18,97 handiagoa), eta 12.898 hektareen artean banatuko zela. Inbertsioa handitzeaz gain, azalera eta denbora txikiago batean banatuko denez ordainketa, kontratuaren plan ekonomikoa eta finantzarioa orekatu behar izan da; hau da, kontratuari hasierako eskaintza-ereduan agertzen zen % 11,328ko BETa itzultzeko, handitu egin behar izan dira ustiapen-azalera (azpiegituraren kalitatearen eta kudeaketaren kanona) eta ur kontsumoari (ur bolumenaren kanona) aplikatzen zaizkien tarifak. Tarifaren % 49,28ko igoera horrek ez du esan nahi sozietate emakidadunaren ordainsaria ehuneko hori handitu denik; izan ere, % 27 murriztu da ustiapen aldia, eta % 16, berriz, ustiatuko den azalera. Hori dela eta, 168,141.744 euro izatetik 188,605.231 euro izatera igaro da emakidadunaren ordainsaria, egungo balio garbiari dagokionez; hots, % 12,17 igo da.

– Noiztik zehazki ari dira sortzen eta ordaintzen ustiapen partzialeko egoeran dauden sektoreei lotutako CCGI, CVA eta CE kanonak, eta zein da orain arte eragindako ureztatze-sektore edo -eremuen arabera sortutako bolumen osoa?

PEI-00997ko 4. puntuari erantzunez, eskatutako egiaztapen akta partzial eta osoak aurkeztu dira, eta horietako bakoitzean ikus daiteke noiz sinatu ziren eta azalera zein den. Era berean, Excel orriak aurkeztu ziren. Haietan, sektore bakoitzean CCGI, CVA eta CE kanonek sortutako zenbatekoak ikusten dira.

– 81/2020 Foru Dekretuan aurreikusitako 2.730 hektareetatik, gaur egun zenbat daude exekutatu-ta, kontratazioan edo proiektua idazteko fasean, eta zein da Gobernuak azalera horiek gauzatzeko duen aurreikuspen kronologikoa eta aurrekontu-aurreikuspena?

Eskaera egiten duen parlamentariak 2025eko abenduaren 11n berari entregatutako PEI-00997aren 6. puntuko erantzunera jo dezake.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen duena betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 22an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00412. Galdera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle doktore laguntzaileei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle doktore laguntzaileei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 21eko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 12an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak PES-11-25/00412 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, Maria Goyri programari buruz. Honako hau jakinarazten dio Nafarroako Gobernuak Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariak horren inguruan:

2025ean, NUPeko 46 laguntzaile doktorek jaso zuten laguntza Maria Goyri programaren kargura. Espainiako Gobernuak 1.787.867 euroz finantzatu zituen.

Nafarroako Gobernuak finantzatutako plazei dagokienez, eta Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin adostutakoaren arabera, irakasle eta iker-tzaileak mailaka sartuko dira 2027-2028 ikasturtera arte.

Horretarako, Nafarroako aurrekontu orokorretan jasotzen da aurreikusitako finantzaketa, Unibertsitate, Berrikuntza eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuaren partida espezifiko batean, Maria Goyri programatik NUPera egindako transferentzia arruntaren izenpean.

Zuzenketen aldiaren ondotik, 607.000 euroko zuzkidura du partida horrek; hau da, Nafarroako Gobernuak finantzatutako plazen erdia.

Laburbilduz, 2026an 61 onuradun izanen direla aurreikusten da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen duena betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 11n

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

11-25/PES-00413. Galdera, eskola-erizainaren figura ezartzeko aukerari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Carlos Guzmán Pérez jaunak eskola-erizainaren figura ezartzeko aukerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 21eko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25-PES.00413 galdera idatzari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako hau jakinarazten du:

Hezkuntza Departamentuan hezkuntza bereziko bi ikastetxe baino ez daude, eta horietan OLT lanpostu bat dago plantillan. Tuterako Torre Monreal HBIP eta Iruñeko Andrés Muñoz HBIP dira ikastetxe horiek.

Nafarroako Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko Ituna sinatu ondoren (Hezkuntzako kontseilariaren irailaren 18ko 86/2018 Foru Aginduaren bidez eman zen argitara), Departamentuak hainbat elkarrizketa izan ditu Osasun Departamentuarekin, ikastetxeetan eskolako erizaina

sartzeko aukeraren inguruan. Elkarrizketa horietan ondorioztatu da ez dela egokia ikastetxeetan erizain edo OLT bat sartzea; izan ere, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren lehen mailako arretako zentroetatik eman behar zaie osasun arta ikastetxeetako ikasleei.

2025. urtean, Hezkuntza Departamentuak beste itun bat sinatu zuen AFAPNA, UGT eta ANPE erakunde sindikalekin, hezkuntzaren ekitatean eta kalitatean aurrera egiteko. Itun hori Hezkuntzako kontseilariaren maiatzaren 13ko 41/2025 Foru Aginduaren bidez argitaratu zen, eta, bertan adierazten denez, Hezkuntza Departamentuak konpromisoa hartzen du Osasun Departamentuari eskola erizaina jartzeko aukera aztertzen jarraitu dezala eskatzeko.

Ituna sinatu duten sindikatuek badakite Osasun Departamentuak ez duela egokitzat jotzen ikastetxeetan eskolako erizainik jartzea, baina, hala ere, Hezkuntza Departamentuak berriro egingen dio eskaera hori Osasun Departamentuari. Nolanahi ere, kontuan hartu behar da, eskolako erizaina ezarri gero, ezin izanen zaiola inola ere Hezkuntza Departamentuari ordainarazi halakoen ezarpena, ez baitago horretarako aurrekonturik.

Iruñean, 2025eko abenduaren 10ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-25/PES-00414. Galdera, Nafarroan goi-tentsioko sarerik izanen ez duten eremuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana María Elizalde Urmeneta andreak Nafarroan goi-tentsioko sarerik izanen ez duten eremuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 21eko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ana Elizalde Urmeneta andreak 11-25/PES-00414 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, goi-tentsioko sarerik ez duten Nafarroako eremuei buruz. Honako hau jakinarazten dio Nafarroako Gobernuako Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariak horren inguruan:

Plangintza elektrikoaren helburuetako bat da sistemaren beharrak aurreikustea epe luzerako

hornidura bermatzeko, eta garraio instalazioetan inbertitzeko beharrak definitzea.

PES-00366 galdera idatzari emandako erantzunean, Departamentu honen ustez 2030eko Plangintzak jaso behar dituen garraio instalazioen zerrenda bat bidali zen.

Instalazio hauek sartu behar dira, eskariari dagokionez behar bat edo behar potentzial bat egonda, egungo instalazioek ez diotelako erantzuten horri.

Urriaz geroztik, Departamentuak ukitutako eragileekin lanean jarraitu du, eta horren ondoren eguneratu egin da zerrenda hori:

– Bigarren transformadorea Estellerriko 220 kV-ko azpiestazioan.

Jarduketa honi esker, Cordovillako 220/66 kV-ko azpiestazioa eta Tafallako 220/66 kV-ko azpiestazioa “deskargatzen” ahalko dira.

– Tafalla-Zangozako 220 kV-ko itxitura berria.

Jarduketa horri esker, 200 kV-ko sarea sartzan ahalko da inguruan.

– La Sernako 400 kV-ko eta La Sernako 220 kV-ko transformazio-azpiestazio elektrikoak handitzea.

Jarduketa horri esker, inbertsio-proiektu estrategiko bat edo batzuk abiaraziko dira.

– Orkoiengo 220 kV-ko transformazio-azpiestazio elektrikoak handitzea.

Jarduketa horri esker, inbertsio-proiektu estrategiko bat edo batzuk abiaraziko dira.

– Erriberriko 220 kV-ko transformazio-azpiestazio elektrikoak handitzea.

Jarduketa horri esker, inbertsio-proiektu estrategiko bat edo batzuk abiaraziko dira.

– El Sequeroko 220 kV-ko transformazio-azpiestazio elektrikoak handitzea.

Jarduketa honi esker, garapen industrialak egin ahal izanen dira Mendabian.

– Urdazubi / Urdax: nazioarteko interkonexioa.

Jarduketa honi esker, Frantziako sare elektrikoak jarraitu ahal izanen da udalerrri hau elektrizitatez hornitzen.

– Etorkizuneko “Itsaso-Muruarte/Castejón” 400 kV-ko ardatza irekitzea.

Jarduketa honi esker, Sakanako banaketa sarea lagunduko da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen duena betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 11n

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-25/PES-00415. Galdera, kirolaren legea taxutzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak kirolaren legea taxutzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 21eko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak 11-25/PES-00415 galdera idatzia egin du, Kirol Legeari buruz. Honako hau jakinarazten dio Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariak horren inguruan:

Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutua hasia da gaur egungo Legea aztertze eta eginen diren jarduerak eta hurrengo urratsak baloratzeko barne-lanetan. Era berean, prozesu horretan parte hartzeko lantalde bat sor dezala eskatu zaio Nafarroako Kirolaren Kontseiluari.

Nolanahi ere, eta lege bat indarrean dagoenez, beharrezkotzat jo da alde aurretik Nafarroako Kirolaren 2025-2028 Plan Estrategikoa egitea (joan den urrian aurkeztu zen), bi arrazoiengatik:

Plan hori funtsezkoa izanen da sektorearen eta Nafarroako gizartearen egungo eskaerei erantzuneko dien esparru estrategiko bat osatzeko bidean aurrera egiteko, eta, jakina, Kirolaren Legean berrikuntzak eta aldaketak eragingo ditu esparru horrek. Bestetik, parte-hartzea handia izan delako (14 elkarriketa mahai, sei lurralde mahai eta zortzi sektore mahai, inkestak, elkarriketak, Nafarroako Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Institutuko teknikariek in bilerak, eta alegazioen fase publiko bat). Beraz, hitza eman zaie herritarrei eta kirolari lotutako eragile, elkarte eta erakundeei.

Foru lege bat onesteko fase batzuk ez daude Institutuaren baitan, baina irmo uste dugu ahalik eta azkarren garatuko direla beharrezko prozedura guztiak, eta behar besteko epeak bermatuko direla, beharrezkoa den segurtasun juridikoa ziurtatzeko eta lana luze-zabal kontrastatu ahal izateko. Hartara, ahalik eta adostasun handiena izanen du legeak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 12an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

11-25/PES-00416. Galdera, kirol mezenasgoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak kirol mezenasgoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 21eko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak 11-25/PES-00416 galdera idatzia egin du, kirol mezenasgoari buruz. Honako hau jakinarazten dio Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariak horren inguruan:

– Bete al da proposamen hori?

Bai.

– Zer neurri hartu dira neurri horiek betetzeko?

Abian jartzeko eta egungo garapenerako hartu diren neurriak Nafarroako Kirolaren eta Jarduera

Fisikoaren Institutuaren web orriko estekan kontsultatu eta aztertzen ahal dira.

<https://www.deportenavarra.es/eu/arauketa>

– Aurreikusita al dago heldu diren bi urteetan neurri berririk hartzea aipatutako proposamenari lotuta?

Tributu Neurrien Legean jasotako kirol mezenasgoaren baldintzak berrikustea.

Aurkeztutako proiektuak aztertzea, egokitzen jotzen diren neurriak ezartzeko, lortutako ondorioetatik abiatuta eta hautemandako beharren eta dauden adierazleen arabera. Konpromiso horrek indartu egiten du kirola integrazio eta garapen sozialerako tresnatzat hartzen duen ikuspegia, eta nabarmendu behar da orain arte egindako ekintzek sendo ezarri dituztela Nafarroako Kirol Mezenasgoaren oinarriak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 11n

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

11-25/PES-00417. Galdera, artxiboei eta dokumentuei buruzko lege bat taxutzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak artxiboei eta dokumentuei buruzko lege bat taxutzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 21eko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 11n
Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak 11-25/PES-00417 galdera idatzia egin du Artxibo eta Dokumentuen Lege berria egiteari buruz galdetzeko. Honako hau jakinarazten dio Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak horren inguruan:

Toki Araubidearen Foru Batzordeak aldeko txostena eman zuen 2025eko azaroaren 24an, aste lehena, egindako bilkuran. Laster, dagozkion txostenak eskuratzen direnean, Nafarroako Parlamentura igorriko da, Gobernuaren bilkuran erabaki ondoren.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 11n

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebecca Esnaola Bermejo

11-25/PES-00419. Galdera, pisu turistikoen lizentziak emateari, ukatzeari eta banatzeari nahiz horien titulartasunari (partikularrak, funtsak edo enpresak) buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, pisu turistikoen lizentziak emateari, ukatzeari eta banatzeari nahiz horien titulartasunari (partikularrak, funtsak edo enpresak) buruzkoa, 2025eko azaroaren 21eko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 15ean
Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak 11-25/PES-00419 galdera idatzia egin du, pisu turistikoen lizentziei buruz. Honako hau jakinarazten dio Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariak:

Gure erkidegoko etxebizitza turistikoari dago kienez, 2024. eta 2025. urteetarako:

1.- Zenbat lizentzia eman dira? Apartamentu turistikoak: 143 inskripzio 2024an (horietatik 1 bertan behera utzi zen 2025ean) eta 127, aldiz, 2025ean.

2.- Zenbat lizentzia ukatu dira eta zein izan da ukatzeko arrazoia? 2024an 6 eraginkortasun-falta adierazi ziren, eta 2025ean 21 izan ziren.

Hauek dira arrazoiak:

1. Irekitzeko udal lizentziarik ez izatea (lizentzia izatea eskatzen duten udalerrietan). Hori da arrazoi nagusia.

2. Jabeen erkidegoaren berariazko akordiorik ez izatea (2025eko apirilaren 3tik dago indarrean, inskripzio berrietarako).

3. Bizigarritasun zedularik ez izatea, udal lizentziarik ez den kasuetan.

4. Etxebizitza babestuaren kalifikazioa izatea (BOE-PTE).

5. Izena emateko gutxieneko kalitate baldintzak ez betetzea.

3.- Adierazi lizentzia turistikoa duten pisuen kopurua, herriaren arabera. Excel batean erantsi dira 2024/01/01eko datan zeuden apartamentuak, datuak lortu arte (2025/11/19) izandako alta berriak jasota. Herria eta udalerria eremuak sartu dira, baita Nafarroako Turismo Erregistroan duten altaren eta bajaren data ere. Oroitarazten dizuegu informazio hori egunero eguneratzen dela eta publikoa dela. Hemen eskuratzen ahal da:

<https://turismoprofesional.navarra.es/eu/servicios-sector/registro-turismo> eta [Gobernu Irekia https://datosabiertos.navarra.es/eu/dataset/alojamientos-inscritos-en-el-registro-de-turismo-de-navarra](https://datosabiertos.navarra.es/eu/dataset/alojamientos-inscritos-en-el-registro-de-turismo-de-navarra)

Etxebizitza turistiko gisa indarrean dauden lizentzia guztiei dagokienez, eta lizentzia horien jabeek dagokienez:

1. Lizentzia horietako zenbat daude zergadun individualen esku? Esandako Excel fitxategian bada "Pertsona fisikoa" izeneko zutabe bat, eta hor "X" batez adierazi da zein apartamenturen titularrak diren pertsonak.

2. Zenbat lizentzia daude inbertsio-funtsen esku? Ez dakigu datu hori.

3. Zenbat lizentzia daude enpresen esku? Esandako Excel fitxategian bada "P. juridikoa" izeneko zutabe bat, eta hor "X" batez adierazi da zein apartamenturen titularrak diren pertsona juridikoak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 12an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebecca Esnaola Bermejo

11-25/PES-00420. Galdera, Nafarroan 2023ko urtarrilaren 1etik aurkeztutako ingurumen-baimen integratuen eskabideei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Nafarroan 2023ko urtarrilaren 1etik aurkeztutako ingurumen-baimen integratuen eskabideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko azaroaren 21eko 139. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 11-25/PES-00420 galdera idatzia egin du, Nafarroan 2023ko urtarrilaren 1etik aurkeztutako ingurumen-baimen integratuei (IBI) buruz. Honako hau jakinarazten dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak, planteatu zaizkion galderei erantzunez:

Ingurumen-baimen integratuaren zenbat eskaera aurkeztu dira Nafarroan 2023ko urtarrilaren 1etik? Horietako zenbatek gainditu dute ebazteko legezko epea?

2023ko urtarrilaren 1etik, ingurumen-baimen bateratua (IBI) emateko 27 eskaera jaso dira.

2025eko abenduaren 9an, 16 espedientek gainditu dute ebazteko legezko epea.

27 eskaera horietatik, 9 ebatzi egin dira eta 18 izapidean daude gaur egun.

Zehaztu behar da legezko epearen zenbaketa eten egiten dela zuzentzeko eta hobetzeko errekerimenduen aldietan. Kalkulua egiteko, banan-banan aztertu behar izan da espediente bakoitza.

Zein dira izapidea atzeratzeko arrazoi nagusiak? Bereizi ingurumen baimen integratuak (IBI), ingurumen-baimen bateratuak (IBB) eta ingurumen-ebaluazioak.

IBlak eta IBBak emateko prozedurak integratzaileak eta sektore anitzekoak izaten dira, eta hori da izapidetzeko epeetan eragina duen faktore nagusia; izan ere, organo substantiboak hainbat administrazio-unitaterekin eta kanpoko eragilerekin koordinatu behar izaten du ondorioz.

Epeak luzarazten dituzten faktore espezifikoak honako hauek dira:

- Zuzentzeko eta hobetzeko errekerimenduak.
- Proiektuaren konplexutasun teknikoa.
- Nahitaezko sektore-txostenak egitea.
- Jendaurreko informazioaren ondoko udal txostena, batzuetan.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zergatik izapidetu edo baimendu ditu biometanizazio makroplanten proiektuak, premien plangintza argirik eta legeria espezifikorik gabe?

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak zergatik ez zuen bultzatu edo gidatu Nafarroako Foru Komunitatean «ingurumenean eragina duten jarduerak» arautzen dituen abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legearen aldaketa bat, Nafarroako biometanizazio plantetarako luzamendu adostua eta juridikoki blindatua ezarri ahal izateko?

Abenduaren 16ko 17/2020 Foru Legearen aldaketaren arabera, legea indarrean jarri eta hamabi hilabeteko epean arauak onetsi behar dira, bermatze aldera Nafarroako biogas eta biometano planten instalazioa lurralde-plangintzarekin, parte-hartze sozialarekin eta segurtasun juridiko osoarekin egiten dela. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak gehieneko zer epe darabil gogoan hori egiteko?

Planteatutako azken hiru gaiei dagokienez, jakinarazi behar da Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentua 2007tik ari dela biometanizazio planten proiektu batzuen eskaerak izapidetzen, eta, ingurumen-baimen integratua (IBI) eman duela araudiak eskatutako ingurumen-baldintzak betetzen zirenean; izan ere, nahitaez bete behar ditu 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua eta 26/2022 Foru Dekretua, 26/2020 Foru Legea garatzeko erregelamendua onartzen duena.

Azken urtean, 2024tik, nabarmen handitu dira horrelako instalazioetarako IBlen eskaerak eta, ondorioz, halako inplantazioak antolatu eta arautuko dituen dekretu espezifiko baten izapidea abiaraztea pentsatu du Departamentu honetako Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak. Dekretua ohiko epeetan helaraziko zaio Gobernu Kontseiluari, departamentu arteko nahitaezko informazio sektorialeko prozesuaren ondotik. Inguruabar hori tarteko, Nafarroako Parlamentuak 14/2025 Foru Legea izapidetu eta onetsi du berriki, izapide-fasean dauden espedienteak 2026ko irailera arte kautelaz etetea ezartzen duena, legeak berak ezartzen dituen baldintzak betetzen dituztenak salbu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 11n

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00421. Galdera, proiektu teknikoki bideragarriak eta hautagarriak eduki arren, 13 gazte aurrekontu-aurreikuspen faltagatik Lurberri planetik kanpo uzteari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, proiektu teknikoki bideragarriak eta hautagarriak eduki arren, 13 gazte aurrekontu-aurreikuspen faltagatik Lurberri planetik kanpo uzteari buruzkoa, 2025eko azaroaren 28ko 143. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko abenduaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 11-25/PES-00421 galdera idatzia egin du, proiektu teknikoki bideragarriak eta hautagarriak dituzten 13 gazte Lurberri planetik kanpo uzten dituen aurrekontu aurreikuspen faltari buruz. Honako hau jakinarazten dio Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak, planteatu zaizkion galderari erantzunez:

Nekazaritzako eta basogintzako Lurberri errelebo-plan berriak 12 ekintza zehatz biltzen ditu, gazteei Nafarroako nekazaritza, abeltzaintza edo nekazaritza-elikagaien jardueretan sartzen laguntzeko. Aurreikusitako ekintzetako bat laguntza prima berri batzuk sartzea da. Hartara, laguntza handiago ematen ahalko zaie zenbait sektore eta hasiberriri, arrazoiren bategatik lehentasunezko gisa identifikatu badira, dela ekoizpenaren orientazioagatik, ezarpenaren eremuagatik, kalitatezko ekoizpena izateagatik edo erreleboa egoteagatik, besteak beste. Prima horien arabera, lehenengoz ezartzeko laguntza modulagarria da, eta aurreko 40.000 eurotik 100.000 eurora bitartekoa izan daiteke, aipatutako adierazleen arabera.

Ebazpen hauen bidez:

– 439E/2024 Ebazpena, abenduaren 30ekoa, Landa Garapeneko zuzendari nagusiak emana, dirulaguntza honen 2025eko deialdia onesten duena: “Nekazari profesional gazteak lehenengoz ezartzeko laguntza, NPEPEaren esparruan”.

– 462E/2024 Ebazpena, abenduaren 31koa, Landa Garapeneko zuzendari nagusiak emana, dirulaguntza honen deialdia onesten duena: “Nekazari gazteak lanaldi partzalean ezartzeko laguntza”.

– 463E/2024 Ebazpena, abenduaren 31koa, Landa Garapeneko zuzendari nagusiak emana, dirulaguntza honen deialdia onesten duena: “Nekazari berriak ezartzeko laguntza”.

Modalitate guztietan lehenengoz ezartzeko laguntzak deitu ziren, eta, horretarako, 2023-2027 aldiko NPEPEa (LGENF) aldatu eta milioi euroan handitu zen 2024ko deialdiko zuzkidura. Esleitutako aurrekontua 4,5 milioi euro izan zen, aurreko urteetako eskaeren batez bestekoak kontuan harturik, eta nabarmen handitu ziren, Lurberriko prima berrien proiektzioa aintzat harturik.

Norgehiagoka formatuan izapidetu zen deialdia, onargarritasun irizpideak eta funtsak esleitzeko lehentasun-hurrenkera ezartzeko dagozkion baremoak barne harturik.

Guztira 114 eskaera jaso ziren (2024an baino % 15 gehiago) eta, dokumentazioa kontrolatu, zuzendu eta barematu ondoren, emakidak egin ziren. 4.490.000 euroko balio ekonomikoa duten 95 eskabideri erantzun zaie, eta gainerakoak ezetsi egin dira, baldintzak ez betetzeagatik edo kreditu faltagatik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko abenduaren 11n

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-26/REPA-00003. Foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik 2026. urtean jasoko dituzten ordainsariak

2026ko urtarrilaren 19an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Kontu-hartzailtza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuak jaulkitako txostena, eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 17. eta 42. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Onestea foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik jasoko dituzten ordainsariak, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin. Honako hauek izanen dira modalitateak eta zenbatekoak:

a) 168,00 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, egoitza Iruñean edo Iruñetik 25 kilometrora bitarteko herrietan daukaten foru parlamentarientzat.

b) 197,00 euroko dieta, deituak diren ekitaldi parlamentarioetara bertaratzeagatik, egoitza Iruñetik 25 kilometro baino gehiagora dauden herrietan daukaten foru parlamentarientzat.

2. Ezartzea ezen, 2026ko urtarrilaren 1etik aurrerako eraginarekin, foru parlamentariak bilkuretara bertaratzeagatik jasoko dituzten ordainsariak igo egingen direla sektore publikoaren zerbitzura diharduten langileentzat Estatuko legedian 2026rako ezarritako gehieneko gehikuntza globalaren zenbatekoan.

3. Agintzea argitara daitezela ordainsariok Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean.

Iruñean, 2026ko urtarrilaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

